

## Aitzol Atutxa aizkolaria Euskal Herriko lehen txapeldun bizkaitarra

11. orrialdea

## Murias talde profesionalen Arratiako ziklistak egongo dira

Murias kontinente mailako euskal taldean daukie hemendik aurrera Arratia Ziklista Elkarteko txirindulariak talde profesionala. Murias eraikuntza enpresek egingo dau kudeaketea eta Jon Odriozola izango da kirol zuzendaria. 10. orrialdea



## Bertsolari Txapelketako kanporaketea hilaren 9an Zeanurin

13. orrialdea

TOKIKOM

# begitu

arratia ubide zeberio

# 217

2014ko zemendiaren 3a  
hamabostekaria  
www.begitu.org

## Hileta agurrak sinplifiketan eta ugaritzen doaz

Arratian hildakoen % 65 inguru erraustu egiten dira. Ortusantuak egunotan jentez beteta egon arren, erabilera gero eta txikiagoa daukie.

**H**iletak sinplifikatu egin dira, jentek ez dau luzatu gura tramite soziala eta. Egiten dan gastuan be ikusten da hori; izan be, gaur egun "orain zapi urtekoaren % 25 edo % 30" da egiten dan gastua Tomas Zamakona Galarza Funerariako gerentearen arabera.

Lemoako Udalak heriotzagaitik agurrak ospatzeko araudia ipini eban indarrean zezeilean, hileta zibilak, erlijino barik bizitea hautatu daben personai agur zeremo-

nia duin eta personala egin ahal izateko. Ondino ez dabe eskaerarik jaso, baina aukerea hor dago erabili gura dauanarentzat.

Ortusantuak paseoa ibilteko leku ederrak izaten dira askotan eta herriko historia ezetuteko leku aproposak. Arratiako kanposantuetan tasak pagau behar izaten dira gorpua lurrean, nitxo zein panteoian sartu edo aterateko, eta desbardinak dira herri bakotxean. Herri baten edo bestean lurperatu, aldea dago. 8. eta 9. orrialdeak



Arteako kanposantua.

### ZEANURI

## Xorokil kanterearen ustiapen prozesua geldituta lur kutsatuakaitik

Legea bete ezker, udalak ezin daua la gelditu Xorokil kanterea ustiatzeko proiektua prebarikazinoa litzatekelako esan eban Eusebio Larrazabal EAPNVkoak urri bigarrenaren 14an, kanterearen aurrean alderdi honen posizioa azaltzerakoan. Enpresari batzuen kanterea ustiatzearen proiektuak oposizio handia topau dau herrian eta herriari konsultetea eskatu dau Zeanuriko Bilduk.

Xorokil Bizirik izeneko bideo bat, Alvaro Rabellik idatzitako *Saguzarren profhezia* ipuina eta kantu bat, sortu dira besteak beste Xorokil kanterea ez ustiatzeko eskatuteko. 5. orrialdea

### ZEANURI

## Euskal Herriko artzai gaztairik onena, Zeanurikoa

Ipiñaburuko Jon Etxebarria eta Puy Arrietak irabazi eben urri bigarrenaren 26an, Idiazabalen jokatu zan XXXI. Euskal Herriko Artzai Gaztai Lehiaketea.

Gaztaiok artaldeko esneagaz egindakoak izan behar dira. Bikote honek, Gorbeian bazkatzen diran arden esneagaz sari asko irabazten dituen gaztai ketuak egiten ditu. 7. orrialdea



### DIMA

## Kalabaza Lehiaketea Igitieko azokan

Kalabaza sasoia da eta 50 kilotik gorakoak be jaso dabez inguruko baserrietan. Horregaitik, Igitiek Arratiako Baserriar Agroekologikoen alkarreak hileroko azokan kalabaza erakusketea eta lehiaketea antolatu dau. Kalabazarik handiena eroaten dauanak Dimara, Arratiako produktuez osotutako saskia izango dau sarizat.

Igitiekoren hurrengo zitea abenduaren 20an izango da Igorren.

7. orrialdea

**Kirru ileapaindegia**  
Roberto eta Rosana

Obrak dirala eta  
ITXITA  
Zemendiaren 3tik 20ra



Sabino Arana 38 behea · Igorre · 94 631 92 00

## ARRATIA ZURI-BALTZEAN

TIMOTEO ATUTXA  
PETRALANDA (I)

Timoteo Atutxa Petralanda 1894. urtean jaio zan aldaketa sakonak sufriduten egoan euskal mundu baten. Arratiako bailaran jaioa, Igorren hain zuzen, nekazal jentartearen gainbehera ezetu eban bere gaztetasunean eta euren arbasoak egin izan eban ez bezala, herria atzean itxi eta beste gazte askogaz batera tranbia hartu eta Bilbora joan zan behargin gisa. Hortxe ezetu eban mende hasikeran pil-pilean egozan hainbat ideologia; sozialismoa, anarkismoa eta zelan ez, Sabino Aranaren eskutik jaiobaria zan abertzaletasuna be. Abertzaletasun barri honek, antxinako estruktural mantentzearen alde agertzen zan Karlismo zaharkituaren aurrean aukera bat suposatzen eban. Gazte

euskaldun askok pozez hartu eban euskalduntasuna eta kristautasuna oinarri eban ideologia barri hau eta horren adierazle parebakoa dogu gure Timoteo Atutxa.

Esan daikegu 3 zutabek eusten ebela Timoteo Atutxaren bizitza eta pentsakerea: abertzaletasuna, kristautasuna eta senitarte. 1923an Arteako Juliana Solatxi andreagaz ezkonduko zan eta bere etxebizitza Igorren ezarri eban. Sei seme-alaba izan eban bikote honek eta guda hasi arte bizimodu ekonomiko erosoan eban Timoteok Bilbotik ekarten eban soldateagaz.

XX. gizaldiko lehen herenean, Timoteo Atutxa eta bere kuadrilak abertzaletasun barri hori Igorren eta bailaran ederto zabaldu eban eta II. Errepublikarako, 1931tik aurrera, hauteskundeetan nagusi izan ziran tradizionalistak sufridu



Timoteo Atutxa.

eben gainbeheraren aurrean. Lan hori guztia suspertu eban Timoteo Atutxa eta beragaz batera jarduten eban gazte abertzaleak ilusinoz eta esperantza barriez beteriko urte hareetan. Baina amets gaizto bat izango balitz legez, 1936ko garrilaren 18an altxamentu faxistea izan zan gure herrialdean 11 hilabete iraun eban gatazka armatuari hasikerea emonez. Hemen be Timoteo Atutxak garrantziko papela izan eban Igorreko Defentsa Batzordearen kide adierazgarria izan zan eta. Bertatik kudeatu ziran gudarako azpiegiturak (lubakiak, barrikadak, errazionamentua...) eta honek izan ziran be guda aurrera egin ahala Igorre ebakutzaren arduradunak. Hilabete gogor honek gazte eta ez hain gazte honek bailaran egindako lan ikaragarria goraiatzekoa da.

Oiane Valero Belasko

## TELEFONO INTERESGARRIAK

## Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00  
S.O.S. DEIAK 112

Guardiako Farmaziak  
09:00etatik 22:00etara

## Zemendiaren 3tik 9ra

Zamalloa. Areatza. Askatasun kalea 15  
Tel.: 94 673 93 22

## 22:00etatik 09:00etara

## Zemendiaren 10etik 16ra

Rodriguez Martinez. Igorre. Agirre Lehendakaria 27  
Tel.: 94 673 61 09

## 22:00etatik 09:00etara

## Zemendiaren 17tik 23ra

N. Arieta Bereciartua. Lemoa. Atutxa Saillburua 1  
Tel.: 94 631 30 18

## 22:00etatik 09:00etara

Melero. Amorebieta-Etxano.  
Zeberioako ez dau guardiarik egiten.

## Urte osoan

## 22:00etatik 09:00etara

Lucia Luño. Kareaga Goikoa 16. Basauri.

## Medikuak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 631 56 30

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 45 03 61

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 20 79

## Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

## Udalen Mankomunitatea

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

## Gorbeialde

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

## Parketxea

94 673 92 79

## Igorreko Kultur Etxea

94 673 62 51

## Gorbeialde Irratia

94 631 52 90

## Trenak

Euskotren 902 543 210

## Bizkaibus\* 902 222 265

## Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegunetan: Lehenengo 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduru: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengo 05:00etan.

Orduru: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

## Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

## Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik 22:30etara 30 minuturo, azkenengo 22:15ean Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30 minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean Galdakaoraino.

## Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era 30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30 minuturo.

## Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik behin.

## Otxandiotik urteerak:

Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

## Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan, Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

## Zeanuri-Lemoa-Bilbo (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

## Bilbo-Lemoa-Zeanuri (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

## Artea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 07:00, 15:30 eta 20:00.

Domeketan ez dago zerbitzurik.

## Bilbo-Artea

Lanegunetan: 05:45, 14:15 eta 18:45.

Zapatuetan ez dago 05:45ekoa.

Domeketan ez dago zerbitzurik.

## Zeberio-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 09:15, 11:15, 13:15 eta 17:45.

Jaiegunetan (Arrigorriagaraino): 08:15, 11:15, 14:15, 17:15 eta 20:15.

## Bilbo-Zeberio

Lanegun eta zapatuetan: 08:15, 10:15, 12:15 eta 16:45ean.

Jaiegunetan (Arrigorriatik): 10:40, 13:40, 16:40 eta 19:40ean.

## La Union\* 94 427 11 11

## Bilbo-Gasteiz

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan dau eta Otxandioakoak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta 16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan dau eta Otxandioakoak 18:30ean.

## Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta 16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta Otxandioakoak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioakoak 10:30ean urtetan dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan dau Gasteizetik. Otxandioak ez dago.



Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea.

Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

Telefonoa: 94 631 73 14.

Helbide elektronikoa: [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)

Webgunea: [www.begitu.org](http://www.begitu.org)

Zuzendaria: Iñigo Iruarrizaga.

Erredakzino burua: Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

Erredakzino taldea: Irati Urien.

Maketazinoa: Iñigo Iruarrizaga.


Publizidadea: Iñigo Iruarrizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

Banaketeta: Marta Rodriguez, Pablo Rodriguez eta Rut Rodriguez (Lemoa eta Bedia), Ibai Milikua (Areatza), Iratxe Arribas eta Xabier Mendieta (Zeanuri), Berbizkunde Arroita (Zeberio), Amaia Uriarte (Dima), Azibar Sagarna eta Iratxe Sagarna (Igorre) eta Ainhoa Mendia eta Irati Urien (Arantzazu, Artea eta Ubide).

Tiradea: 6.800 ale.

Inprimategia: Iparragirre Editoriala.

## Babesleak:



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundutakoa



Bizkaiko Foru Aldundia  
Diputación Foral de Bizkaia  
Kultura Saila  
Departamento de Cultura

## ZEURE BERBEA

### EAIk eta Igorre Danontzatek salatu egin dabe Bilduren argitasun faltea, Udaleko batzordeak baztertu eta dekretu bidez aritu izana

Igorreko alkate Beñat Anzolak (Bildu) ustekabean iragarri dau, joan dan urri bigarrenaren 6an egindako udalbatzarrean, alkate-dekretu bidez onartuko dala 105eko obren hasikerrea. Harrigarria da gardentasunez jarduten dauala esaten dauan alderdi batek eta parte-hartzea bultzatu eta asanblea funtzionetan dauala ago beteaz saltzean dauan alderdi batek bere berbea jaten dauala ikustea, udaleko batzordeak baztertua, eta horrek hasarrea sortzean deusku.

2013ko abenduan, Bizkaiko Foru Aldundiak jakinarazo eutsan udalari 8 hilabeteko epea eukala obrak hasteko. Epea abuztuan amaitu zan. Ze zentzu dauka orain alkatearen dekretuz obren hasikerrea onartzeak, obrak abuztuan hasi behar ziranean? Zergaitik ez dira ondo egin gauzak, herrirako hain garrantzi handia daukan proiektu batek merezi dauan zorroztasunaz? Zertarako balio dau obren hasikerrea onartzeak, hasteko epea amaituta dagoanean, eta orain barriro hasi behar danean eta baimena eskatu behar jakonean Aldundiari.

Alkatearen gestino eta prebisino fal-

tea, tamalez, negargarria izan da, itzela. Urigintza-batzordean EAJ alderdia proiektuaren alde agertu zan, baina lehentasunak jarrita Lehendakari Agirre kaleko obrak egiterakoan. Horrek izan beharko leuke zentzuzkoena, gaur egungo ekonomiaren egoerea ikusita.

ID udal taldeak orain dala urte bi esan eban obra honek lehentasuna eukala, nahiz eta proiektu honegaz eta eremuagaz bat ez etorri: 105 etxalde guzti-guztia hartzearen alde egoan, eta ez zati bat bakarrik, oraingo proiektuak egiten dauan moduan, ezta inguruaren zati bat bakarrik oinezkoentzako bihurtzearen alde.

EAI ETA IGORRE DANONTZAT

### Kantika Korala Igorren

Zemendiaren 16an aukera ederra izango dogu musikeagaz eta kantutakaz gozatzeko. Igorreko Kultur Etxean kontzertu ezin hobea eskeiniko deusku Leioako Kantika Koralak.

2001ean sortu zan gaur egun be zuzendari dan Basilio Astulezen eskutik. Hamar eta hamazazpi urte bitarteko 45 neska-mutilek osotuten dabe. Mundu zabalean hainbat kontzertu emondakoa da itzelezko arrakastea izanik. Nazioarteko garrantzia handiko sariak lortu dauz.

Koralak daukan curriculumaz ezetuta aparteko ekitaldia itzarotekoa da eta BEGITUREN irakurle guztioi konbite berezia joatzue entzuten joan zaitezten.

LUIS IRUARRIZAGA ABESBATZA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezkerre, BEGITUK eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkartea. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbidera.

## GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

### Txirrinka



Txirrinkea (txirrínkea, agoskatuta) da makina, ibilgailu edo errota baten uraren indarrak eragiteko eta mobimentua errezututeko, ardatzaren inguruan biraka egiten dauan pieza zirkularra. Arratian badagoz beste era honek be gauza bera esateko: txirringa, txerrinka (txirringea, txerrínkea), txirritola, erruda, erreuda (errudéa, erreudéa). Batuaz, gorpila esaten da. Txirrin-erroa, zilindro forma adierazoten daben hainbat berbakaz be badaukagu: txirrintola/txirrinkola (bizikletea), txirrintola/txirrintola/txirringola/txirrintola (olgetako zilindroa)...

## ERETXIA

### Herriko euskerea ikasi

Hizkuntzea landutea eta jagotea danon zeregina da. Etxean irakasten da lehenengo, eskolan gero. Ahozkoa etxean ikasten da gehiago eta idatzia eskolan gehiago.

Mendebalde Kultura Alkartea euskalkia aztertuteko eta euskalkiari prestigioa emoteko sortu zan. Euskerearen kasuan euskalki batzuk tradizino idatzia euki dabe eta tradizino hori ortografia barriaren arauetara ekarri behar izan da. Deklinabidean eta aditzean be proposamen barriak daukaguz. Batez be herri euskaldunetan, herriko euskereak indarra daukan herrietan esan gura dot, irakaskuntza sisteman herriko euskereak eta estandarrik, biak euki behar leukie presentzia. Etxekoagaz hasi eta apurka-apurka besterantz be bideratu.

Euskereak indarrik ez daukan lekuetan gaur egungo akats larrieneraiko bat da umeak edo ikasleak arlo akademikora murriztea hizkuntzearen erabilera. Euskerea ikastetxeko hizkuntza bihurtu da holangoetan, maisuagaz edo andereñoagaz bai eskola barruan, baina lagunakaz jolas-tokian erderaz gero. Herri erdal-dunetako egoera hori batzutan herri euskaldunetan be ikusten da zoritxarrez.

Hizkuntzea aldatuaz doa. Batzutan pentsetan dogu berezko aldaketak dirala baina ondo ikusi ezkerre, erderearen eraginez datozen interferentziak dira gehien-gehienak. Gaztelaniaren alboan bizi gara, gaztelaniagaz batera. Konturatu barik, euskeraz berbetan egon arren, erderazko esklamazinoak, esakerak, modan dagozan esaldi barriak urteten deuskue. Beti ez jako garrantzi handiegirik emon behar, baina jokereak zeozer esan gura dau, batzutan erderan topetan doguz, euskeraz urteten ez deuskuen baliabideak eta esamoldeak. Euskerazkoak ondo ez dakiguzalako,



ENEKO BARRUTIA  
Mendebalde Kultura Alkartea

edo modan dagozanak erderazkoak diralako eta derrigor horreexek esan behar doguzalako.

Euskerearen gramatika gai inportante asko ondo aztertu barik dagoz ondino. Izenordain eta erakusle indartuak noz erabili eta noz ez: ni/neu, hau/hauxe, hau/berau, hemen/hementxe/hamen, hori/horixe/haori/berori... Aditza galdegaia danean "egin" sartzean da: "etorri egin da", aditz trinkoetan be egitura bereziak dagoz: etorri dator, ibili dabil... Esaldiko elementuen ordena, entonazinoa, azentua,

zelan esaten diran esaldiak. Horreex gai garrantzitsuok argituteko eta ikasteko herriko euskerara jo behar da derrigor. Eta horreex ondo ikasteak eta ondo erabilteak hizkuntzeari espresibide handia emoten deutso, aberastasuna eta jatortasuna.

Lexikoa edo hiztegia, euskera estandarrean, larregizko garbizalekeria dago sarri eta lexikotik konpleju asko sartzean dira. Guk "bentanea" esaten dogu, kipu-tzak "duroa" (orain durorik ez dago baina). Zenbat bider entzun doguz holangoak! Baina Euskal Herri guztian, euskalki guztietan beti esan da "pagau". "Ordaindu" berba polita izango da, bai, baina bestearen aldean tradizino tristekoa eta ezin da ulertu zelan kendu gura deusan lekua beste-ari. Bardin pasetan da beste berba askogaz, kostalde guztian, Bizkaian, Gipuzkoan eta Lapurdin arrantzaleak "langustea" esaten dabe. Inok ez dino "otarraina". Eta euskera batuan "otarraina" esaten bada, hiztegiak holan badakarre, ba txarto dagoana euskera batua da, ez bestea. Konpleju batzuk geuk sortu deusaguz, zetan ez dala, herriko euskereari.

Mendebaldeko euskerea, Bizkaikoa, Arratiakoa, beste edozein lekutakoa baizen ederra da. Harro sentidu behar dogu geure herriko euskereagaz, eta hortixik abiauta, erabilera landua be etorriko da, inguruak edo egoereak horixe eskatuten dauanean. Hortxe dago *Arratia Inguruko Hiztegia*, liburu ederra, Angel Larreak eta Juan Rekaldek egina. Holangoxe beharginak eta lanak behar ditu gure herriko euskereak.

**BATZ** 50 urte

BATZ, S. KOOP.  
Torreaga auzoa, 32  
48.140 IGORRE (BIZKAIA)

IZAN GINAN...

...BAGARA ETA IZANGO GARA

Endakari Batzuen gaitia

MONDRAGON 3200

## LUMATUTEN

MAITE ARTABE  
URKIRI

## Ardatzik?

**E**txean tirin-tarran nabilela bariak ETBn. Adi jari nona Luis Marianoren izena entzunda. Nire aitari itzelean gustetan jakonan, izena be hortik jatortana; halan zirrara.

Baina zelan dozan kontuak ze azkenean gure abeslariaren handitasuna alboratu ta detaile txiki batek harrapatu ñona: Marcelle Charton dona Luis Marianoren hilobiaren zaintzaile. Bere jarraitzaile sutua ei zonan, eta Bourdeaux-ekoa izanda, beren-beregi horretarako aldatu ei jonan bizitokia Arrangoitzera. Izan be, loraz gainezka ageri dona hilobia.

Aurkitu jona horrek munduan lekua, helburua eta beretzat ondo bizitea, aspertu barik, zer donan ulertzeko modua. Bere egunak eta bizitzak hilobi hori zaintzea jona ardatz.

Bizi-aukera bitxi hori kanikea lez jabiltana buruan. Personak diferentek gozana gero!

Gurean be zaintzaile lanak bete jona bizitzako proiektua izateko helburua sasoi baten, baina badakina, alabak nagusi eta guraso barik,

ardatz hori soltetea erabaki geiñonan eta... libertadearen amildegia.

Eta esan geuntsanan alkareri: "Hi, beranduegi dona txarto biziten segiduteko, maja!" Eta nork pareu gu orain! Agujetak eta nekeak bai, baina goroldiorik ez jakuna aterako, ez horixe!

Adi egon ezkeru bizitzaren ugartasuna harrigarria dona, hainbeste kontu interesgarri jagozana. Batzuetan arazoak aukeratuteko be; guk hiru bizitza inguru beharko geunkezana gure interesgune guztiak betetako. Bai, baina ez ete gabilzana "hazka eta hazka, ondo eta asko, baina hazkurek ez dagoan lekuan?".

Marcelle Chartonek Luis Marianoren hilobia ardatz dauan legez, guk be beharko joguna geurea, marea-tuta jausi ez gaitez. Hasnartu egin beharko jonat neurearen inguruan, ze astiak zein ekintzak proiektu barik asperdura besterik ez jakama; eta aspertutea sano dona bizitza onaren kontrakoa.

Hik badekona eurea? Igual ardatz bat baino gehiago be bai hik, edo ardatz barik erdi mareauta bizitea gustau.

Gure etxean Luis Marianorenak ezeze kantatua zan beste kanta ha be: "Porque no engraso los ejes me llaman abandoná..." Aste honetan berrentzun jonat gehien gustetan jatan bersinoa, Chavela Vargasena. Hara hor ba, honek, ostera, ardatzak kinkili-mankala, zaratatsu jozana gogoko, ez ei jozana sekula koipeztauko.

Benetan be gustuko jozanat tangoak. Zegaitik ete? Tangoak ondo jantzatzeko, sentimentua, nork berea eta alkarregazkoa, eta ardatz sendoa, ondo oratu ta soltau be ez, behar dozana. Igual horrexegaitik, ez?

## ZERTZEAN



## MAITE ARRIZABALAGA

**M**aitasuna ez da perfekzioa  
Maitasuna akatsa da

Maitasuna ez da arrazoa  
Maitasuna egia da

Maitasuna ez da helburua  
Maitasuna bidea da

Maitasuna ez da bizia  
Maitasuna arnasa da

Maitasuna ez da bakea  
Maitasuna mezua da

Maitasuna ez da beldurra  
Maitasuna adorea da

Maitasuna ez da ni, zu...  
Maitasuna gu da

Zer da ba maitasuna, ezpada, egunsentian eguzkirik ez dagoenean, norbere begiekin argia ikustea... arrotza, ezberdina dena gure bihotzeko bazter sakonetan ere topatzea... ezerezaren hondarretatik sentipena sortzea...

Zer da ba maitasuna, ezpada, maitalearen arrazoiak eta maitatuaren egiak bide bardinean bat egiteko horraino eraman dituen bano...

\* Zertzean atalean argitaratuko doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran moduan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera eremuan ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITUN argitaratu gura izan ezkeru, eskatu egiguzuz argitaratzeko baldintzak [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbidean.

## BEGI TXINDORRA

**M**usikearen jai erraldoia izan zan Areatzako Euskal Jaia. Gure Musikari Handiak egon ziran bertan, Leon, Maurizia eta Fasioren txotxongilo erraldoiak eta eurekaz batera musikari eta musikazale ugari, Areatzako bazter guztiak bete ebezanak.

Gontzal Mendibilek esaten dauan moduan "kantetan dauan herria ez bada hiltzen", osasun ederra daukala Areatzak erakutsi eban urri bigarrenaren 24, 25 eta 26an. Kantu tradizionalak eta barriagoak, historia diranak eta historia aldatu gura dabenak kantetan ibili ziran kantetan dakienak eta ez dakienak.

Festa erraldoia izan zan.



**Gorosti** Lorategien Diseinu eta Gauzatzea  
Ureztaketa instalazioa  
Mantenua eta Inausketa  
LORAZAINTZA  
Bidosa Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea  
Tel.: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88  
[gorosti@gorostisl.com](mailto:gorosti@gorostisl.com)

**agoa** Ortodontzia  
hagin klinika  
Implanteak  
Estetika  
Marina Uriagotia Aldekoa  
Oñangoa  
Bidebarri 1, behea  
48140 Igome-Bizkaia  
T. 94 631 50 39  
Kalegata Zentiloa 100  
R.F.S. 21/06

**FISIOTERAPIA** **Sasobide**  
Balneario Areatza  
Tania Fernandez Santiago  
COL. 1718  
[www.gruposasobide.com](http://www.gruposasobide.com) Tel.: 94 657 54 50

## ZEANURI

# EAJ-PNV: "Legea bete ezkerro, Udalak ezin dau gelditu Xorokil kanterea ustiatzeko proiektua prebarikazinoa litzatekelako"



Eusebio Larrazabal.

Eusebio Larrazabalek, Xorokil kanterea handituta ebatzi zanean alkate zanak, azaldu eban urri bigarrenaren 14an, Xorokil kanterearen gaineko Zeanuriko EAJ-PNVren jarkerea. Larrazabalen arabera, "EAJ-PNVk ez dauka posizino bat alderdi moduan. Ez dago ez alde ez kontra, eretxi desbardinak dagoz". Ha ta guzti be, kanterea ustiatzearen proiektua Udalak ezin dauala gelditu esan eban Larrazabalek, hori "prebariketea izango litzatekelako".

### Erredakzinoa

Behin espedientea martxan dagoanean, proiektuak legeak eskatuten dauzan gauza guztiak beteten badauz, udalak derrigorrez esan behar dauala baietz; eta ez badauz beteten, derrigorrez ezetz, azaldu eban EAJ-PNVkoak.

Momentuz, proiektua geldituta dago lurra kutsatuta dagozalako. Harrobia ustiatzen hasteko, lur horreek lehenengotik garbitu beharko litzatekez.

Lehenengo arau subsidiarioetan, kanterea sartzea ago batez onartu zala ekarri eban gogora Larrazabalek. Arau barriak egin

ziranean, 1993an eta 1998an mantentzen egin zuten kanterea arauotan, eta horren erantzukizuna konpartidua zala azpimarratu eban jeltzaleak "partidu danak pasau dira udaletxetik eta inork ez dau ezer esan" esan eban.

Baina "2000 urtean herritar batzuk enpresa batzuk ipini ziran kontaktuan kanterea martxan ipinteko". Udaletxera joan ziran laguntza eske eta "beste proiektu batzuek legea, udala laguntzeko prest agertu zan". Orduan hasi ziran tramiteak egiten.

### Kanterea handitu

Arau subsidiarioetan 3 ha.ko kanterea agertzen bazan be, udalak 2007an 34 ha.tara handitzea onartu eban. Handitze honek ez eban beste partiduen babesia izan, eta EAJ-PNVkoen botoak bakarrik onartu zan. "Gaur egun, akaso, ez zan hori aterako, baina momentu haretan holan izan zan" Larrazabalen arabera. Kanterea handitu izan ez balitz proiektua ez zala aurrera aterako be onartu eban Larrazabalek. Kanterea handitzean, 8 urtetik 30 urtera luzatu zan ustiatzeko epea.

### Galdeketea

2014ko maiatzaren 27ko udalbatzan, EH Bilduk galdeketa bat egitea eskatu eban, herritarrak harrobia ustiatzearen alde ala kontra dagozan jakiteko. EAJ-PNV ez dago horren alde, "errespetu" falta bat dalakoan, informazio hori jasotakoan, ustiatze prozesua geldituta ez dagoalako euren eskuetan. "Udalak legea bete behar dau eta herritarrak kanterea martxan ipintea ez badabe gura, udalak ezin izango dau ezer egin legea urratu barik" esan eban.

## ARRATIA

# Arratiako Gure Esku Dago egongo da Donostiako mosaiko erraldoian

### Erredakzinoa

Gure Esku Dago mobimentuaren hurrengo ekimena mosaiko erraldoi bat egitea izango da Donostiako Zurriola hondartzan. Kataluniako galdeketearen bezperan izango da hau, hilaren 8an. Mosaikoan 5.000 persona inguru ba-

tuko dira eta horretarako, Arratiako 100 lagun behar dira gitxienez.

Kopuru horretara heltzeako, Arratiako Gure Esku Dagok zehaztu dau herri bakotxatik zenbat lagun joan beharko litzateken, kontuan izanda giza kateko ekimenera zenbat joan ziran herri bakotxatik. Hori dala eta, herri ba-

tzuetan ekintzaren barri emoteko ekitaldiak antolatu ditue; Diman, barbarako, urri bigarrenaren 31n izan zan. Areatzan, mahai bat ipini eban domekan, zinemadiak 2. "Jente gehiegik emoten badau izena, zozketa egin beharko dogu" azaldu eutsan BEGITURI Areatzako taldeko kide batek.

Hurrengo egunean, Kataluniako galdeketearen egun berean, Euskal Herriaren erabakitzeko eskubidea aldarrikatuko dabe Diman, herriko auzuneak zeharkatuko dauan kote karabana baten bitartez.

## ZEANURI

# Alvaro Rabelliren Saguzarren profhezia ipuina kalean

### Erredakzinoa

Halloween egunean izan zan Rabelliren ipuinaren aurkezpena Zeanuriko Kultur Etxean. Arratia Bizirik-ek argitaratu dau *Saguzarren profhezia*, Suzien Mendi Kluba eta Zertu Kultur Elkartearen laguntzaz. Begitu-lagunak liburua doban hartuko dabe.

Egilea eta Jose Carlos Torre marrazkigilea egon ziran aurkezpenaren ipuinaren sorkuntzearen gorabeherak kontetan. Xorokil kanterea ustiatzearen kontra sortu da ipuin hau. Harrobiaren ustiatzearen kontra hainbat ekimen antolatu ditue Zeanuriko herritarrak Arratia Bizirik-ek batera. Era pedagogiko baten be zeozer egin gura izan dabe eta horren frutua da Rabelliren liburua "liburua betiko hor geldituko da" dinoe Arratia Bizirik-ekoak. Rabellik aurkezpenaren hurrengo esaldiagaz laburbildu eban ipuina: "Gu izadia, lurra, mitoak, historia eta oroimena gara, leku honek sortuak. Hau galtzean bada dan-dana galduko da betiko", Jose Carlos Torre marrazkilarik be azaldu eban bizitza amets bez beteta dagoala, eta amets barik ez dagoala bizitarik. Bere ametsa marrazkiak liburu baten argitaratuta zala adierazo eban eta hori lortu dauala, bertan egozan guztiak be amestuten baeben harrobia ez dala ustiatuko hori be egia bihurtuko zala gaineratu eban. Zertu Kultur Elkarteko

Oihane Barrenetxea lehendakariak be hartu eban berbea "Zertuk sorreratik konpromiso sendoa dauka Arratiako kultura ondareagaz eta holan ikusi leiteke hamabostero BEGITU aldizkarian. Kulturearen harira be hainbat argitalpen egin eta lagundu dauz Zertuk bere 12 urteetan. Baina kultura ezin lei uler-tu natura barik, ingurumena eta bizi garan espazioa kultureari guztiz lotuta dagoz. Hain lotuta ze munduko kultura askotan dikotomia hau, natura-kultura dikotomia, ez dan existiduten. Gu be hein baten eretxi horretakoak gara. Horregaitik, geure kultura eta ingurumenagaz proiektu honek daukan konpromisoagaitik ebatzi genduan lagundutea eta Begitu-lagunen artean zabalduetea" esan eban.

Aurkezpen ekitaldian, Arratia Bizirik-en Xorokil kanterea ustiatzearen kontrako bideoa proiektatu eban, Arkaitz Estiballes bertsolariak bertso batzuk kantatu ebazan eta Iñaki Lasa, Zeanuriko ipuin kontalaria Rabelliren ipuinaren pasarte batzuk irakurri ebazan. *Halloween* eguna izanda, aukerea ezin izan eban pasetan itxi antolatzaileak eta Angel Larrea egon zan bertan kontetan *Halloween* Ameriketako Estatu Batuetatik ekarri baino lehen, Euskal Herrian be erabilten zirala kalabazak fetxa honeetan bildurra eragiteko.

Atzenik, sorgin jantza batek emon eutsan amaierara aurkezpen berezi honeri.



Liburuko irudi bat.

## ARRATIA

# Bizkaibus barrero martxan

### Erredakzinoa

Hamahiru greba egun egin ostean, atzen laurak greba mugabakoan, akordio batera heldu ziran Bizkaibus-eko beharginak eta Bizkaiko Foru Aldundia eta zerbitzua barri-oro ipini zan martxan normalidade osoz urri bigarrenaren 31n.

Aldundia konprometidu egin da

hainbat linea barri ipintera. Holan lanpostu guztiak mantentzen ahal izango diralakoan, Bizkaibus-eko beharginen ordezkariek akordioa sinatu eta beharrera bueltau ziran. Izan be, horregaitik izan zan greba. Bizkaibus-eko lineak moldatu egin behar ziran eta moldaketa horretan lanposturik ez galtzea eskatuten eban beharginak.

## ARRATIA

**Nafar produktuez osotutako otzarak eskatu daitezke hileon****Errigorako batzordea.****Erredakzioa**

Nafarroa hegoaldeko nekazaritza eta euskalgintza batera bultzatzeko asmoz sortu zan Errigora proiektua eta abian da daborduko aurtengo udagoieneko kanpaina. "Nafar hegoaldeko uzta euskarari puzka" lelopean, Nafarroako nekazariak ekizitako produktuak erosiz, lortutako irabazien bidez euskereak irauteko eta garatzeko arazoak dituan lurraldeetako hainbat ekimeneri emoten jako bultzadea. AEK-k, Sortzen eta Ikastolen Elkarrekin eta Zazpiak Bat Harreman Sareak antolatuten dabe kanpaina hau alkarlanean. Otzarok, 50 eurotan dagoz salgai.

Arratian honako lekuetan egin daitezke eskariak: Areatzan, The Quiet

Comer tabernan; Diman, eskolan; Igoeren BATZ kooperatiban, Institutuan, eskolan eta Jubiladuen etxean; Lemoan eskolan eta Zeanurin Sagama Txokoan. Zabalik dago eskaerak egiteko epea. "Igaz polito urten zan. Euskal Herri osoan 8.000 otzaratik gora banandu ziran eta 112.000 euro lortu ziran" dino Kari Basozabal Errigora batzarrekoak.

**Hiru proiektutarako dirua**

Saskia kalidade bikaineko nafar produktuak osotuten dabe, eta merkaduko prezioan saltzean dira. Diru horren % 25 nafar helgoaldeko hiru proiektutarako izango da: egoera larrian dagoan Lodosako ikastolarako, "Euskaraz bizi eta ikasi" herri ekimenerako eta Erriberako AEK-rentzat.

## ARTEA

**Hiru lagun atxilotuta farmazian lapurtzeagaitik****Erredakzioa**

Durangoko ertzain-etxeko agenteak, urri bigarrenaren 13an, hiru andra atxilotu ebezan Artean, ustez lapurreta delitu bat egiteagaitik.

Ertzaintzaren iturrien arabera, zerbitzuz kanpoko agente batek Durangoko ertzain-etxeko kideai jakinarazo eutsen ustezko lapurreta bat egiten egozala Arteako farmazian. Ertzaina konturatu zan hiru andrazkok dendako kaja batzuk hartu ebezala eta auto baten sartu ondoren Bilborantza abiatu zirala igesi. Minutu batzuk geroago, patruila batek N-240 kaminoan topau eban ibilgailua. Ertzainak auto barruan joizan hiru personak identifikatu eta autoa erregistratu eban. Barruan, lau kaja topatu ebezan 400 euro baino gehiago balio eben dietetika produktuz beteta. Hori dala eta, ertzainak hiru andrazkoak atxilotu ebezan, lapurreta delitu bat egitea egotzita.

## LEMOA

**Udagoieneko Nekazaritzako Elikagaien XV. Azokea Elizondon****Erredakzioa**

Lemoako Udalak antolatuta Gorbialdea Landa Garapen Alkartearen laguntzaz, zinemendiaren 9an Lemoako XV. Nekazaritzako Elikagaien azokea egongo da Elizondon, futbol zelaiaren ondoan. Goizeko 10:00etatik 15:00etara, Bizkaitik etorritako 20 ekizlekin ipiniko ditue salgai baserriko produkturik onenak. Ganzabal Mendi Taldeak antolatutako erakusketa mikologikoa be egongo da bertan.

Musikea Arratiako Musika Eskolak eta Lemoako Koralak ipiniko dabe. Orduetako aldera, Arratiako Musika Eskolako ikasleak kalejiran ibiliko dira herritik zehar animazinoa ipinten, eta 14:00etan, Atxetako plazan eta azokako txoko desbardinetan, Lemoako Koralagaz batera kantau eta jantzan egingo dabe Musika Eskolako ikasleak.

## ARRATIA

**Sukaldean prestatutako landare-hondakinak be bota ahal izango dira edukiontzi marroira****Erredakzioa**

Bosgarren edukiontziko hondakin organikoak tratetan dauzan Bizkaiko Konpostegiaren araudi barriak sukaldean prestatutako landare-hondakinak be onartzen dauz, modu egokian kudeatuko dan materia organikoaren kopuruak handitzeko asmoz. Hori dala eta, ez bakarrik sukaldatu bako landare-hondakin organikoak, sukaldatutakoak be eroan ahal izango dira edukiontzi marroira. Modu horretan, kalidade handiko konposta sortzea espero dabe Arratiako Udalen Mankomunitatean, Europako Zuzentzarauak betez.

Mankomunitateak uriguneetan materia organikoa batzeako sistema horren aldeko apustua egiten segi-

duen dau, eta jentea animau gura dau, modu aktiboan parte hartutera. Bosgarren edukiontzian hondakin organikoak bota ahal izateko, udal-txean edo Mankomunitatean izena emon behar da eta beharrezkoak diran materialak hartu behar dira: ontzia, boltsa konpostagarriak eta edukiontzi marroiren giltzea.



## ARRATIA

**Etxeko konpostajearen aldeko sensibilizazio kanpaina, Arratiako Eskola Agendan****Erredakzioa**

Mankomunitateak eskualdeko ikastetxeak kolaboratu dau 2014-2015eko Eskola Agendaren 1.100 aleko edizinoan, ikasleak eta familiak materia organikoaren tratamendu egokiaren garrantziaz sensibilizetako asmoz.

Agendeak 1.100 aleko edizinoa eukiko dau, eta Arratia eta Zeberioiko zazpi ikastetxetan bananduko da. Mankomunitateak 1.200 euroko diru-laguntzea emon dau lana egiteko, eta

umeen artean etxeko konpostajea sustatzeko material didaktikoa daukien lau orrialde sartu dauz. Orrialdeotan, jolasak, marrazkiak eta materia organikoaren zikloari buruzko informazinoa dago.

Ekimen honegaz, etxeko konpostajea sustatzeko kanpaina barriari emon jako hasikerea Arratian. Kanpainaren barruan, datozen hilabeteotan tailerrak eta jarduerak be egingo dira eskualdeko ikastetxeetan. Izan be, AUMren ustez, eskola-umeak lehentasunezko helburuetako bat dira.

## IGORRE

**Igorreko Udalak gaitzetsi dau Kutxabank-eko sukursalari eraso****Erredakzioa**

Etxean egindako lehergailu batek kalteak eragin ebezan Kutxabaneko Igorreko sukursalean, urri bigarrenaren 24an. Goizeko laurak aldera izan zan eraso eta ezta bulegoko sarrerako atea bere lekutik atera eban, kristalak be apurtuz. Gasteizko beste sukursal baten be, beste lehergailu bat topau eban Ertzaintzak eztanda egin aurretik. Kutxabank-ek Asanblada Nagusia eukan deituta urri bigarrenaren 24an eta eraso

horregaz lotu eban Eusko Jaurlaritzako Segurutasun Sailak.

Egun berean, Igorreko Udalak bando bat atera eban eraso gaitzesten. "Era horretako ekintzak BBK, Vital eta Kutxako bankarizazio prozesuaren gainean emoten ari dan eztabaida politikoa estaltzeko bakarrik balio dabe. Igorreko Udaletik era horretako ekintzak gure gizartean lekurik izan ez dagien eta helburu politikoak bide demokratikoetatik defendidu daitezkan lanean jarraituko dogula adierazoten dogu" inoan bertan.

**Igorreko Kutxabank.**

## IGORRE

**Andren memoria ukatua errekuiperetako tailerra****Erredakzioa**

Igorreko Udalak "andrai historian zehar ukatu jakien memoria" errekuiperetako tailerra antolatu dau.

Ikastaroa, urri bigarrenaren 28an hasi zan, eta abenduaren 16ra arte izango da. Sortzen-eko Piedad Dorado izango da formatzailea eta bere eskutik historia liburuetatik kanpo geratu diran eta memorian be espazio txikia daukien andren barri eukiko dabe partaideak.

Ikastaroa andrazkoentzat da, batez be edadeko andren parte hartzea bultzatu gura izan dau udalak oraingoan. Jubiladuen lokalean da eta parte hartzeako deialdia jubiladuen bitartez egin dabela dino Soraya Lizundia zinegotziak "edadeko andrak animetako".

## ZEANURI



Jon Etxebarria eta Puy Arrieta. Artxiboko argazkia.

# Ipiñaburuko gaztaia Euskal Herriko artzai gaztairik onena

### Erredakzioa

Jon Etxebarria eta Puy Arrietak Ipiñaburuko gaztaitegian egindako gaztaiak irabazi eban XXI. Euskal Herriko Artzai Gaztai Lehiaketea. Lehiaketea urri bigarrenaren 26an izan zan Idiazabalen eta bertan 40 artzainek aurkeztu ebezan euren gaztaiak.

Gaztaioak artaldeko esneagaz egindakoak izan behar dira; hau da, ezin dira egin erositako esneagaz. Eta Gorbeia inguruan bazkatzen diran ardiak esne onona emoten dabe. Etxebarriak eta Arrietak udabarriko esneagaz egiten ditue hainbeste sari irabazten dituen gaztaioak.

Produzino mugatua daukie Ipiñaburukoak, urtean 6.000 kilo inguru. "Etxean eta enkargupean saltzean doguz danak. Martian hasten gara saltzean gaztai barria eta urrietarako amaituta egoten da" azaldu deutso BEGITURI Jon Etxebarriak.

Idiazabalen izandako txapelketa hau Artzai Gazta Elkarteak antolatuten dau eta partaideak alkarteko

kideak dira. Finalera heltzeako kanporaketak egin ziran lehenengotik herrialdeka.

### Sariak

Sari asko jasoten dabe Zeanurikoak urtean-urtean. Bat aitatzearen, orain urte bi Ordiziako Gazta Txapelketea irabazi izana, eta aurtengo saririk inportanteena Euskal Herriko Artzai Gazta Txapelketea izan da. Dana dala, aurten be irabazi ditue beste sari batzuk: Bergarako Txapelketea, Hondarribiako eta Arzak Sarietan bigarren egin eben, besteak beste.

### Artzai Gazta Elkartea

Alkartea, Araba, Gipuzkoa, Bizkaia eta Nafarroako 111 artzain eta gaztaiginek osotuten dabe, danak Idiazabalgo Jatorri Deiturearen eragin eremukoak. Artzai Gazta Elkartea 1980ko hamarkadearen erdikaldean sortu zan, gaztaiaren kalitatea hobetuteko eta haren nortasunaren alde egiteko. Artzai gaztaia artzainak egindako gaztaia da, euren artaldeko latxa ardien esne gordinagaz.

## LEMOA

# Aurrekontuetarako herritarren ekarpenak jaso dauz auzuneetatik Lemoako Udalak

### Erredakzioa

Urri bigarrenaren 30 eta 31n, Lemoako alkatea eta zinegotziak, herrian ipinitako gutunontzietatik pasau ziran 2015. urterako presatzen dabizen aurrekontuetarako herritarrek egindako ekarpenak

jasoteko eta ekarpen honeek entzuteko.

Lehenengo egunean, Aizti, Iturritxe, Txiriboketa, Azurreka eta Mendietatik ibili ziran udal ordezkariak. Hurrengo egunean, Arraibi, Estazinoa, San Inazio, Pozueta, Intzuntza eta Gaztetxetik.

## DIMA

# Kalabaza erakusketea eta lehiaketea, Igitiek Diman egingo dauan azokan

### Erredakzioa

Hilaren 16an, domekea, Igitiek, Arratiako Baserritar Agroekologikoen alkarteak hileroko azokea egingo dau Diman udala eta herritarren laguntzeagaz. Bertako barazki, pasta, gozo, ogi eta zuzatz landarez gainera, Zornotzako gaztaia eta bitxikeriak, Urdulizeko garagardoa, edo erropa eta konplementuak beste gauza batzuen artean erosteko aukerea egongo da. Umeentzako txori harrapakarien erakustaldia be egongo da, baina gauza guztien artean, bitxiena duda barik, kalabaza erakusketea eta lehiaketea izango da.

Kalabaza sasoia danez eta kalabazeari azokan presentzia eta protagonismoa emoteko, Igitiekoak kalabazarik handienari saria emongo deusie Diman. Saria bertako produktoreen produktuakaz egindako otzara bat izango da. Inguruko baserritarrak kalabaza handi-handiak aurkeztuko dituela uste dabe antolatzaileak. "Etxean 50 kiloko kalabazak hartu doguz. Horreek baino handiagoak aurkeztea espero dogu" esan eutsan BEGITURI erronka botaz Igitieko Xiber Uriartek.

Bigarren eskuko azokea, truke azokea eta umeentzako puzgariak be egongo dira Diman Igitieko hileko azokan. Hurrengo zitea

Igorren izango da abenduaren 20an.



**0% MERKATARITZA BIZIA**

**100% MERKATARITZA BIZIA**

>>> Ikusten duzu aldea? Zure esku ere badago

**ZURE SALTOKIA ETA ZU**

PERTSONA HELBURI  
EUSKO INJENIARITZA GOBERNO VASCO

## HILETAK

# Heriotzearen alde soziala sinplifiketako joerea dago gure eskualdean

Saso hobek bizi izan dabez ortusantuak. Paseatzeko leku aproposak dira, herri horren historia hilarrietan irakurri eta bertako seme-alaben bizitza eta heriotzak gogora ekarri edo imajinatu bitartean. Baina heriotzearen inguruko ohiturak, araudia, prezioak, erlijino ugaritasuna eta ideologia aldaketak, euren erabilera gitxitzea ekarri dabe. Ekarki dau baita be errituak ugaritzea gorpuaren atzen egoitzari eta agur zeremoniai jagokienean.



## Erredakzioa

Apurka-apurka hildakoari agur zibilak egiten hasi dira Arratian, eta egon be badagoz katolikoa ez dan beste erlijino batzuk daukiezan herritarrak. Hori dala eta, Lemoako Udalak hileta zibilak egiteko, heriotzeagaitik agurrak opatzeko araudia ipini eban indarrean zezeilean. Honen helburua

hildakoak bizitza ulertzen eban moduagaz bat eginda, erlijino barik bizitea hautatu daben personai zeremonia duin eta personala eskeintzea da. Ondino inork ez dau erabili. "Ez dogu kasurik izan, ez dogu eskaerarik euki eta orduan ez dakigu arautegia mar txan ipinten dogunean zelan funtzionauko dauan. Uste dot nahiko zabala egin dogula ordutegiaren

aldetik eta malgua, familiak berak gura dauan ordutegian egin ahal izateko" dino Saioa Elejabarrieta Lemoako alkateak. Aukerea hor dago, beraz, jenteak aukeratu dagian zelango agurra egin gura deusnan hil danari.

Arautegi horretan udalak zeremoniak egiteko lekuak zehaztu ebazan. Ez dira bakarrik barruko gelak, plazak be erabili ahal dira

Lemoako Udalak,  
heriotzagaitik agurrak  
ospatzeko araudia ipini  
eban indarrean zezeilean

Gaur egun lehen baino  
diru gitxiago gastetan  
da hildakoari agurra  
egiten: orain zapi  
urtekoaren % 25 edo  
% 30a, hain zuzen

Lemoan. Kiroldegia, Pleno Aretoa, Arraibiko plazea eta Elizondoko plazea dira horretarako dagozan espazioak. Ordutegiaren aldetik, astelehenetik domekara egun guztietan egin ahal izango dira hileta zibilak, goizeko 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara aste barruan, eta zapatu eta domeketan 10:00etatik 13:00etara. Eskabidea egin behar da aurretik eta ez da tasarik ordaindu behar.

Galarza ehortzeteko Dimako beilatokian, barriz, egin izan dabez hileta zibil batzuk. "Gero eta hileta zibil gehiago egiten dira baina ehunekoak ez da handia ondino. Hurreko batek zerbaist irakurten dau, hildakoa dagoan gelan zein sarreran" azaldu deuto BEGITURI Tomas Zamakona Galarza Funerariako gerenteak.

## Erraustutea gehien aukere

Arreta psikologikoa familiari, dokumentazioaren tramitazioa, gorpua jaso eta txukundu, beilatokira edo zeremonia egingo dan lekura eroan, erraustu edo lurperatzea izaten dira hileta zerbitzurik erabilienak. Balsamatzeak egin behar izaten dira gorpua atzerrira bialdu behar bada eta gorpuaren errekonstruzioa oso kasu bakanetan egiten da gurean.

Atzen urteotan, hiletetan egiten dan tramite erlijioso eta soziala asko sinplifikau da, bai mentalidade aldaketeagaitik, bai arrazoi ekonomikoakaitik. Arratian hildakoen % 65 inguru erraustu egiten da. "Familiak ez dabe prozesua luzatu gura. Zenbat eta lehenago erraustu edo lurperatu, hobe; zenbat eta lehenago amaitu tramite soziala, hobe. Handikeria ez da nagusituko gurean. Gorpua gelan eukiteak jenteak ikusteko, diru bat balio dau. Lorak be ipinten dira. Jenteak ez dauka dirua sobran eta mentalidadea be aldatu egin da. Gaur egungo gastua, orain zapi urtekoaren % 25 edo %30 da" dino gerenteak. Bizkaian, legeak eskatzen dauan gitxiena betetzeak mila eta berrehun euro inguru balio dau. Faktu-

**Zugaitik BEGITUten dogu**  
A.P.I. 495  
[www.inmobiliarialarrea.com](http://www.inmobiliarialarrea.com)

**Lehendakari Agirre, 8 behea**  
48140 Igorre

**Tfnoa: 94 631 80 04**

**Olaetxe**  
OPTICA SINTILUA

Graduazinoak  
Ikusmen terapia  
Ikusmen gubitua  
Begiko tentsioa  
Lentillen adaptazioa  
Kiroletarako betaurrekoak

Sabinu Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)  
Tel: 94 657 70 03 - [olaetxeoptika@hotmail.es](mailto:olaetxeoptika@hotmail.es)

**Gure Ikastetxeak**  
Arratiako Herri Ikastetxeak 2 urtetik 18ra. Euskalduna, kalitatezkoa, herrikola

**Arratia BHI**  
Tel.: 94 673 62 37 Faxa: 94 673 62 37 Igorre

**Ikastola Arratia HI**  
Tel.: 94 673 90 65 Faxa: 94 673 90 65 Artea

**Zubialde HI**  
Tel.: 94 648 06 82 Faxa: 94 648 14 84 Zeberio

**I. Zubizarreta HI**  
Tel.: 94 673 60 22 Faxa: 94 673 60 22 Igorre

**Areatzako Herri Eskola**  
Tel.: 94 673 90 93 Faxa: 94 673 90 93 Areatza

**Zeanuri HI**  
Tel.: 94 673 93 33 Faxa: 94 673 93 33 Zeanuri

**J.B. Eguskiza Meabe HI**  
Tel.: 94 631 32 28 Faxa: 631 32 28 Lemoa

**Ugarana HI**  
Tel.: 94 631 55 32 Faxa: 94 631 92 11 Dima

Hour hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Bortxeragoak, Hezkuntza zirkloak



rea asko igo da aspaldi honetan BEZa dala eta. Izan be, % 8 izatetik % 21 izatera pasau da; hau da, % 13 igo da.

Gaur egun, gehiago dira gorpua erraustea aukeratzen dabena. Arrazoi bat, baina ez bakarrik, merkeagoa dala da. 300 edo 400 euroren truke gorpua erre eta hautsak errauts-kutxa baten jaso daitezke. Dana dala, 2019an indarrean sartuko dan legeak panorama hau aldatu da. Gas kutsagarrien isurketearen inguruko araudiak inbersino handiak eskatuko ditu gorpu-erraustegietan. "2019rako labe guztiak filtro barri batzuk euki beharko dabez. Honek suposatzen dau 400.000 euroko inbersinoa labe bakotxeko. Eta honek esan gura izango dau erraustearen prezioak gora egingo dau eta oraingoaren bikotxa ala hirukotxa izango dala. Orduan jentek kontuak egingo ditu barriro. Akaso, nitxo bat alokatzea merkeago izango da. Baina nik uste joera erraustearen aldekoa izan behar daua" dino Zamakonak.

#### Kanposantuak, hildakoagaz loturea mantenduteko

Ortusantuen erabilera gero eta txikiagoa izan arren, desagertu ez dirala desagertuko uste dau Zamakonak. Etorbizunean zer gertatuko dan ez dago jakiterik, baina argi dago erraustek bentaja batzuk badituela. Dana dala, familiak jaubetzaren bat badauka kanposantuan, lurperatzea be izan daiteke aukera ona. Holan, hildakoagaz ez da loturea bat-batean eta guztiz eteten, hilobira bisitak egiten jarraituten dabe-eta seniarteak. Lurperatzea ebatzi ezker, gastuak handiagoak izaten dira, udalak tasa batzuk kobretan ditu lurperatzeagaitik, horretarako

egin behar diran beharrakaitik, hain zuzen be.

Gainera lekua normalean ez da familiarena izaten, emakida luzeak izaten dira, 99 urterako, barbarako. Edo bestela nitxo bat alokatu behar da. Nitxoak, normalean 10 edo 15 urterako alokatzen dira eta urte horreek pasetan diranean, gorpuzkinakaz zer egin ebatzi behar da barriro. Izan be, ortusantu batzuk hazurtokiak izan arren, danak ez daukie hazurtokirik. Normalean, familiak hazurrak erretea ebazten dau.

Baina kanposantuak hildakoak lurperatzeko leku bat baino gehiago dira. Memoria lekuak izaten dira, herri baten historia kontetan dabenak eta Arratiakoak be bertoko memoriaren zati bat gordetzen dabe. Herriak bizi izandako dramak gogora ekarri, eta herri horren seme-alaba maitteenak edo personaje historikoak bisitatu daitezke ortusantuetan. Ortusantu batzuk ezagunak dira bertan batzean dan arteagaitik, beste batzuk pasealeku ederrak izaten dabez. Turismoa erakarten dabenak be badagoz, Erromako Katakunbak, Parisko Père Lachaise edo Berlingo juduen hilerria, barbarako.

#### Gitxiago eskatzen diran zerbitzuak

Beste herrialde batzuetan, Frantzia esaterako, ohikoa da astebete edo hamar egun pasetea personea hil danetik erre edo lurperatu arte. Holan astia emoten dau urrinekoak hurreratzeko edo ekitaldiak egiteko. Kasu honeetan balsamau egin behar izaten da gorpua.

Atzerrira bialdu behar danean balsamatzen da gurean gorpua. Tramiteak luzeak izaten dira eta dokumentazio guztiak egin birtartean, astebete edo 10 egun

pasau daitezke.

Balsamatze legala mediku forenseak egin behar dau. Formula sartzea da. Odola kendu eta formula sartu, beste gauza batzuen artean. Hileta zerbitzuko enpresak tramitetan dabe hori eta forensea euren instalazioetara joaten da. Osasun sailak baimendutako konserbazino eta balsamatzerako gela bat dago Dimako Galarza Funerariako beilategian.

Istripu bat egon danean eta gorpua txarto geratu danean, berregite beharrak egiten dabezan taldeak egoten dira. "Guk ahal doguna egiten dogu, baina badaoz horretan espezialduta dogozan taldeak. Arpegia berregiten, batez be, behar ikusgarriak egiten dabez. Kobrau be holan kobretan dabe. Normalean ez da holangorik eskatuten. Hemen berregite bakarrik egin dogu. Bankari baten semeari egin eutsen eta Frantziatik etorri zan ha berregiteko taldea" dino Zamakonak.



#### Hilerriko tasak

Herri guztietan pagau behar dira tasak hildakoa kanposantuan ehortzeko, baina tasak desbardinak dira udalerrien arabera. Gure eskualdean, Lemoak, Bedia eta Zeanurik bertan errolatuentzat daukie tasarik bajuenak. Garestiako urtetan jako familiari senidea Artea edo Zeberioko ortusantuetan lurperatzea.

Hilobien emakida merkeenetakoa Lemoan (435,35€), Bedia (450,75€) eta Igorren udalerrian errolatutakoentzat (518,51€) dagoz. Areatzan, barriz, hilobia 10 urterako hartu ezker 1.000 euro pagau behar dira eta 2.500 euro 50 urterako bada. Zeberion, 1.200 euro herrian errolatutak eta 1.800 euro ez errolatutak.

Gorpua lurrean, panteoian edo nitxoan sartu daiteke eta hemen be pagau beharrekoa desbardinak da herriaren arabera. Lurrean sartzea, batz bestea, ehun euro inguru izaten da. Lemoan 73,10

euro dira, Zeberion 262,50 euro eta Artea 250 + BEZa. Panteoian bada, Zeanurin errolatutak 89,70 euro pagauko dabe eta Igorrenkoak 178,51 euro. Nitxoan sartzeak barriz, 66 euroko prezioa dauka Bedia, eta 150 euro + BEZa, Artea.

Baina hor ez dira amaituten gastuak, alokairua edo emakida agortutakoan, hazurrak atera egin behar izaten dira eta. Herri batzuetan prezio bardina izaten dau sartzeak eta aterateak; Zeanurin eta Zeberion, barbarako, eta beste lekuetan aldea ez da handia izaten. Holan, Artea, lurrean sartzea 250 + BEZa bada, ateratea 240 + BEZa da. Igorren tasa desbardinak dagoz gorpua ehortzirik pasau dauan denporearen arabera. Hau da, urte bi baino gitxiago igaro badira eta baimen judiziala izan ezker, 195,52 euro pagau behar dira; 2tik 5 urtera pasau badira, 148,77 euro eta 5 urtetik gora pasau bada, 97,76 euro.

**ASESORIA Gorbeialde**  
Juridikoak · Fiskala · Lanekoa · Kontularitza  
Askatasun 26, 1B 48143 Areatza  
Tfnoa. 94 673 92 93 Faxa. 94 673 92 82  
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com

**FISIK**  
FISIOTERAPIA ETA ERREHABILITAZIO ZENTROA  
Tel. 94 685 11 16  
LEHENDAKARI AGIRRE, 17 - IGORRE

24h  
EGUNEKO OGIA  
vending pan  
IGORRE  
Lehendakari Agirre

**ejosi**  
Azaroaren 9an, **ZEANURIN**n.  
17:30ean, Ibarreta frontoian

**Kanporaketak**

Ander Ertzei Garate	Beñat Vidal Berrutxaga	Igor Monje Bengoetxea	Imanol Unia Alzuri	Joseba Barandiaran Andueza	Xabier Salaberrena Abenoa

www.bertsozale.eus/bizkaikotxapelketa

**bertsozale** **begitu**

## TXIRRINDULARITZEA

**Datorren urterako babesleak topatu ditu Tiritu Masters taldeak****Erredakzioa**

Urtebete egingo dau laster Dimako Tiritu Masters taldeak eta marka onak lortu dau denpora honetan, Jalmar Bobber "Jimi" partaideak egin dau berurrentzat urte honetako balantzea.

**Zeintzuk osotuten dozue Tiritu Master taldea? Hasikerakoak zarie ala aldatu egin da?**

Talde Alberto Hierrok, Xabier Gonzalezek, Bittor Martinezek, Aingeru Arretzek, Josu Amunizak, Iñigo Yurrebasok, Iker Lekuek, Xabi Atutxak eta nik neuk osotuten dogu. Inoz Iñaki Pujana be etori da geugaz. Naia Alzola da taldeko presidentea eta Abel Ariznabarreta idazkaria.

Hasikeran, Julen Alvarezek be geugaz konpetiduten eban, baina zoritxarrez taldea itxi behar izan dau beharreko obligazioak dirala eta.

**Lortu dozue master 40 eta master 50 taldeak osotutea? Ala segiduten dozue bakarrik master 30 izaten? Eta andra talderik?**

Ez. Momentuz ez dogu master 40rik baina beharbada datorren urtean baten bat eukiteko esperantzea ez dogu galdu.

Andra talderik be ez dogu lortu. Ea Naia Alzola gure presidentea, nesken elite talde batez daukan konpromisoa amaituten dauanean Tiritugaz konpetiduten animetan dan.

**Uste dot aurten hainbat txapel lortu dozuezala. Noz, non eta ze txapelketatan?**

"Global Master Cycling"eko sailkapen orokorra; hau da, Bizkaia, Nafarroa, Kantabria, Aragoi eta Leongo itzulien arteko ligan, garaipena Dimara etori zan Alberto Hierroren eskutik.

Bizkaiko txapela be lortu dogu eta hori izan zan taldearen helburua hasikeratik.

Aitatzekoa be bada, Bittor Martinezen hirugarren postua Peñacabargan edo Lagos de Covadongan, 4.000 partaideen artean; edo Iker Lekueren hirugarren postua Euskobik BTT lasterketan.

Nahiz eta konpetizinoa izan ez,

sano pozik nago Xabi Atutxagaz batera egin neban Luchon-Baiona 320 km.ko marxeagaz. Tourmalet, Aubisque, Preysorde, Aspen eta beste Pirineotako mendi askotatik pasetan dan lasterketea da eta 13 ordu egin behar izan genduzan amaituteko. Sano marka ona da.

**Zeintzuk dira zuen hurrengo zikitak?**

Hurrengo zikitak ziklo-krosean eta mendi duatloietan daukaguz.

**Zelan ikusten dozue etorkizuna talde moduan? Hasikerako helburuak beteten dabiz? Zeintzuk dira orain daukazuezan erronkak?**

Etorkizuna ilusino handiz ikusten dogu. Topau doguz sponsorrak eta logistika eta medioen aldetik eskailleran maila bat igo dogu.

Hasikerako helburuak sobran bete doguz, ze helburua ondo pasetea zan eta kirol arloan be laguntzaile bako talde batek Master Procyding-a irabaztea gauza handia da.

**Konpetiduten dauan talde bat izateaz gainera, uste dot lagunak be bazariela. Mantentidu egiten dozue adiskidetasun hori?**

Taldeakideak izan aurretik ziklismoko kideak ginan, baina orain esan ahal dogu lagunak garala eta horrek gauzak asko erretzen ditu.

**Alkarregaz entrenetan dozue? Noz entrenetan dozue eta ze motatako entrenamentuak dira?**

Sarritan entrenetan dogu alkarregaz, baina hori beharreko eta familiako obligazioen arabera. Entrenau baino gehiago bizikletan urtetan garala esan leiteke, profesionalak ez gara eta.

**Balantze positiboa egiten dozue eta ilusinoz aurrera begira orduan.**

Aprobetxau gurako neuke datorren urteko gure laguntzailei eskerrak emoteko. Eskerrik asko Banco Mediolanumeko Mikel Ibarri, Fisik Fisioterapia zentruko Kerman eta Paulari, Piedadeondo egoitzako Josu Garigortari, PC Coste Galdakaoko Iker Irazuri, eta Olaetxe optikeari.

## TXIRRINDULARITZEA

**Arratiako ziklistak izango ditu Murias txirrindularitza talde profesionalak**

Javier Etxarri, Juan Mari Zurinaga eta Jon Odriozola.

**Erredakzioa**

Murias enpresek Arratiako Ziklista Elkartegaz (AZE) batera, Euskal txirrindularitza erreferente izan gura dauan talde profesionala ipini dau martxan. Muriasek kudeatuko dau taldea eta AZEk ziklistak ipiniko ditu. Holan, Arratiako ziklistak talde profesionala izango dabe. Jon Odriozola txirrindulari ohi ezaguna izango da talde honetako kirol zuzendaria.

Arratiako Ziklista Elkarteko presidentea dan Juan Mari Zurinaga emozionauta agertu zan proiektuaren aurkezpenean. Muriaseri esker, "profesional talde bat euki ahal izango dogu Arratian" esan eban. Hasikerahasikeratik Adrian

Gonzalez, Ander Barrenetxea eta Mikel Bizkarra egongo dira plantillan.

**Murias eraikuntza enpresea**

Urri bigarrenaren 30ean izan zan proiektuaren aurkezpena Bilboko Alondegian. Zurinagaren ostean, Javier Etxarri, Muriaseko enpresariak, proiektua zer dan enpresa honentzat azaldu eban. "Proiektu hau, euskal gazte batzuen garapen profesionalean egindako inbersino moduan ikusten dogu, eta ez txirrindularitza lez bakarrik" esan eban.

Murias enpresek, San Mames Barriko lanetan hartu dau parte eta merkatal zentroak, hirugarren adinerako egoitzak eta hainbat

parking kudeatzen ditu.

**Jon Odriozola kirol zuzendaria**

Jon Odriozola (Oñati, 1970) txirrindulari profesionala izandakoa da. Gewiss taldean hasi eban bere ibilbidea 1995ean eta 1998an Banesto taldeak fitxau eban. Urte haretan, Espainiako Itzulia irabazi eban taldeko partaidea izan zan: Abraham Olanok lortu eban lehenengo postua eta Odriozolak berak hamabigarrena. 2004ra arte ibili zan lehian, garaipen asko lortuz. Atzen urtea Kelmenean egin eban.

Lehiatzeari itxita, Orbea taldeko kirol-zuzendaria izan zan eta Euskaltel-Euskadikoa ondoren.

## GOLFA

**Kepa Ikutza Europako Selekzinoen Pitch&putt Txapelketan****Irati Urien**

Kepa Ikutza dimoztarra Andorran egon zan, Europako Selekzinoetako Pitch&putt Txapelketan. Be-

ragaz beste bost lagun joan ziran Euskal Herritik. Txapelketan zortzi selekzinok hartu eben parte, afizionau mailan. Lehenengo postuak hurrenez hurren Katalunia, Holanda eta Galiziarentzat izan ziran. Euskaldunak zazpigarren gelditu ziran. "Gu sano pozik emoitzeagaz, lau urte baino ez daroaguz honetan, besteak ostera hogeitik gora – dino Ikutzak – sailkatzea bakarrik asko izan da guretzako, eta ia ia Norvegiari seigarren postua kendutea zer esanik be ez".



Tiritukoak Bizkaiko Txapelketan.

Argazkia: "Ane Bizimartxak".

**arratiako instalazioak s.l.**  
Berokuntza - Iturgintza - Gasa  
Aireztatzeko sistemak  
Aire zurgatze zentralizatua  
Suteak kontrolatzeko zerbitzuak eta mantentze lanak

Igorreko Industrialdea  
Fab. D7  
Tel. Fax. 94 673 62 76  
Tel. 619 736 516  
48140 Igoñe Bizkaia

**AIZKOREA**

# Atutxa, Euskal Herriko lehenengo txapelkun bizkaitarra historian

**Irati Urien**

Aitzol Atutxa da aurtengo Euskal Herriko Aizkora Txapelketa Nagusiko txapelketa. Nafar bako lehenengo final honetan, aizkorearen historiako lehenengo irabazle bizkaitarra izan da Atutxa. "Ilusino egiten dau, datu horrek hor segiduko dau berrehun urte barru be", adierazo dau dimoztarak. Sei izan ziran urri bigarrenaren 26an txapela jokatu eben finalistak: Jon Irazu, Jose Mari Olasagasti, Unai Otaño, Iñaki Azurmendi, Joseba Otaegi eta Aitzol Atutxa. Floren Nazabal ez

egoanez Azurmendi zan faboritoa; beasaindarrak etxean jokatuten eban, eta bera zan igazko txapelduna gainera. Beronegaz ibili zan denporaz hurbilen Atutxa, baina esan leiteke atzanean alde atera eutsala Dimakoak. 40 minutu 58 segundu Atutxak, 43 min. 05 seg. Azurmenik eta 48 min. 04 seg. Olasagastik, honeek izan ziran lehenengo hiruren denporak.

Ehundik gora arratiar joan ziran Beasaingo Antzizar pelotalekura Aitzol animetan. Autobus bi bete eta Axpe Goikoan euki eben danak bazkaria gero.



**Aitzol Atutxa.**

**AIZKOREA**

# Alex Txikon txapelkun Bizkaiko Bigarren Mailako Txapelketan

**Erredakzioa**

Alex Txikon lemoztarrak irabazi eban urri bigarrenaren 18an Larrabatzun jokatu zan bigarren mailako Bizkaiko Txapelketa. Hori holan, datorren denporal-

dian lehenengo mailan jokatuko dau Txikonek.

Beharra amaituteko 18 minutu eta 16 segundu behar izan eban lemoztarrak, bigarrenari hiru minutu ateraz. Done Intxaustik eta Beñat Lekuek osotu eben podiuma.

Unai Aldape dimoztarra be egon zan finalean eta laugarren egin eban.

**Neguan K2ra**

Alex Txikonek negu honetan K2ra joango dala barriro konfirmatu dau bere Facebook-ean. Adam Bielecki eta Denis Urubkogaz joango da eta iparraldetik saiatuko dira tontorra zapaltzen. Bielecki eta Urubko izan eban espedizinokide Txikonek Kangchenjungan.

K2 mendia (8.611m.) munduko bigarren mendirik altuena da, Everesteren atzetik eta gatxena eskaletako.

**Bizkaifisios SLk**  
bi zentro ditu  
**Fisioterapia Zentroa Igorre**  
Ellexalde 4  
Telefona 94 631 55 08

**Andra Mari Klinika**  
Fisioterapia Zentroa  
Pontzi Zabala 1, Galdakao  
Tel/faxa 94 457 23 64

www.bizkaifisios.com

**LASTERKETEAK**

# Ionut Zinca eta Maite Maiorak irabazi dabe aurtengo Gorbeia Suzien

**Erredakzioa**

Gizonezkoetan, Ionut Zinca irabazi dau aurtengo hirugarrenez, Gorbeia Suzien Banco Mediolanun Sari Nagusia. Hau da, Zinca Gorbeia Suzien lasterketearen edizino guztiak irabazi dauz. Andrazkoetan, Maite Maiora, Espainiako Txapelduna eta Munduko Txapeldunordea izan zan lehena helmugara ailegetan.

Ionut Zinca 02:46:16ko kronoa egin eban aurtengo luzeagoa eta gogorragoa izan dan ibilbidea amaituteko. Izan be, lasterketea, Skyrunner Championship barruan sartu da eta beste tontor bat gehiago euki dau ibilbidean, Lekanda, hain zuzen be. Tofol Castanyer-ek eta Aritz Egeak osotu eben gizonzkoen podiuma.

Andrazkoetan, Maite Maiorak errez irabazi eban proba 03:14:42ko kronoa eginda. Bigarren Azara Garcia de los Salmones izan zan, eta hirugarren Antonella Confortola. Leire Agirrezabala igazko irabazleak proba itxi eban 15 kilometroaren inguruan.

**Herri osoa beharrean**

Suzien Mendi Klubak gura eban moduan, mendiaren inguruko jai arrakastatsua izan zan Gorbeia

Suzien. Ehundaka boluntariok egin ebezan posible mundu mailako lasterketea, mendi martxa eta aurreko egunetako ekitaldiak. Eta lasterketa egunean Zeanuriko he-

rri osoak egin eban lagunduteko ahalegina.

Beheko zerrendan lasterketea amaitu ebenen arratiarren datuak dagoz.



**Zinca eta Maiora irabazleak.**

**Argazkiak: Festak.com.**

Zbk.	Lasterketa	Heria	Postua	Kronoa
31	Eba Urizar	Dima	320	4:45:53
55	Ibon Gurtubai	Igorre	30	3:18:27
64	Xabi Kantsau	Lemoa	117	3:50:24
76	Jon Ander Susaeta	Lemoa	315	4:44:57
117	Eukeni Atutxa	Igorre	136	3:58:33
134	Josu Markina	Igorre	67	3:36:21
154	Egoitz Zautua	Igorre	74	3:39:23
165	Ander Astondoa	Igorre	163	4:06:04
205	Ibai Milikua	Zeanuri	353	4:56:09
214	Joseba Sanchez	Igorre	235	4:23:53
277	Zigor Gurtubay	Igorre	145	4:02:09
286	Andoni Amuriza	Igorre	285	4:36:55
301	Asier Martin	Zeanuri	137	3:59:23
310	Patxo Uriarte	Areatza	427	6:10:20
390	Xabier Trigeros	Zeanuri	379	5:10:59
405	Aingeru Gurtubai	Lemoa	65	3:35:50
411	Iñaki Martinez	Dima	182	4:12:34
417	Julen Alvarez	Areatza	258	4:30:28
419	Ekaitz Aierdi	Igorre	224	4:22:16
420	Ibon Iza	Dima	118	3:50:28
421	Anartz Gumuzio	Zeanuri	81	3:41:09
422	Alberto Cano	Igorre	402	5:27:11
430	Eneko Iza	Zeanuri	358	4:59:13
432	Illart Gumuzio	Zeanuri	349	4:54:08
434	Iñigo Gonzalez	Lemoa	327	4:47:19
440	Egoitz Beobide	Igorre	152	4:02:58
443	Modesto Nuñez	Igorre	201	4:17:53
445	Roberto orbe	Igorre	296	4:39:28
446	Unai Sierra	Igorre	208	4:18:52
453	Koldo Prieto	Igorre	326	4:45:32
469	Jon Intxaurre	Zeanuri	132	3:55:53
478	Igor Perez	Zeanuri	100	3:47:07
490	Unai Intxaurre	Zeanuri	98	3:46:38
492	Jon Uriarte	Igorre	348	4:54:07
493	Igor Zautua	Igorre	372	5:07:01
498	Gorka Perez	Igorre	140	4:01:02
503	Asier Egia	Bedia	105	3:48:05
509	Patxi Moral	Igorre	343	4:52:59
558	Unai Bengoetxea	Zeanuri	411	5:35:40
567	Gorka Urutxurtu	Igorre	284	4:36:52



**Eba Urizar eta Ibon Gurtubai. Lehen arratiarrak.**



**Euskal Selekzioari omenaldia.**

## KIÑU GAZTETXEA

I. Rokupa  
Fest Kiñu  
Gaztetxean

## Irati Urien

Zemendiaren 15erako I. Rokupa Fest antolatu dau Igorreko Kiñu Gaztetxeak. Zemendiaren 16an urte bete beteko da gazteak eraikina okupau ebenetik, hortik jaialdiaren izena. "Rock" eta "okupatu" berbakaz olgauta "Rokupa" sortu dabe. Bazkariagaz hasiko dabe jaia gaztetxean bertan, eguerdiko 14:30ean. Poteo musikatua egongo da 18:00etan herritik zehar eta 22:00etan kontzertuak tabernetan. Hementxe talde bakotzak non eta ze ordu-tan joko dauan: 22:00etan, MG Banda Axular herriko tabernan; 23:15ean, Zeinke Arratiko Zekorrrak Rugby Tabernan; 24:30ean, Larregi KKMn eta 01:45ean, The Jari Flowers Trokan.

Gaztetxea osterara barikuetan 18:00etatik aurrera zabalik egongo dala jakinarazo dabe Kiñukoak.

## BERTSO AFARIA

Sanmartinetako  
IV. bertso afaria

## Erredakzioa

Arantzazuko Bildu Kultur Batzordeak, Sanmartinetako IV. bertso afaria antolatu dau zemendiaren 14rako Arantzazuko Montero tabernan. Aurten, Arkaitz Estiballes eta Fredi Paia ibiliko dira bertsoetan.

Aurretik, iluntzeko 20:00etan, trikipoteoa hasiko da herritik zehar eta 21:00etan, harrerea egingo jakie bertsolariak. Afarian, otzara bat zozketatuko da.

Sarrerak, Igorreko Herrikoan, Gau Lora Tabernan eta Arratiko Zekorrrak tabernan erosi daitezke. Arantzazuko, Herriko tabernan eta Monteronean.

## LEHIAKETEAK

Oihana Iguaranek irabazi dau Dimako  
Kalenturak Ipuin Lehiaketea

Oihana Iguaran.

## Erredakzioa

Oihana Iguaran Amasakoak (Gipuzkoa) irabazi dau Dimako Kalenturak Ipuin Lehiaketako I. edizinoan, "Bi begi tentazio" narrazioagaitik. Bigarren saria Garazi Basterretxearentzat (Erromo, Bizkaia) izan zan. Hamabi narrazio aurkeztu ziran guztira. Arratiako egilerik ez zan egon. Horregaitik, Arratiako egile baten narrazio onenerako egoan saria, hirugarren sari bihurtutea ebatzi eban Janire Lopez, Aritz Arrizabalaga, Iratxe Etxebarria eta Rafa Ugaldek osotutako epaimahaia.

Sari banaketa ekitaldia urri bigarrenaren 24an izan zan. Bertan, Ibon Izak, Bihotz Gorospek, Dabid Ibarra "Houston"ek eta Edorta Jimenezek, bertsoak, poemak eta beste testu erotiko batzuk irakurri ebezan.

Irabazleak, bere eretxia emon deutso BEGURI, besteak beste, le-

hiaketea eta literatura erotikoren gainean.

**Zein izan da zure orain arteko ibilbidea literaturan?**

Literaturan egin dodan ibilbidea irakurle moduan egin dot. Idaztea be joera naturala izan da niretzat, baina gehienetan barrura begira egin izan dot. Gustauko litxak literatur munduan ibilbide bat egitea, baina horretarako mundu horri zer eskeinia izan behar dot. Hori da bilatu eta landu behar dandana.

**Zelan jakin zenuen Dimako lehiaketaren barri? Zergaitik ebatzi zenuen aurkeztea?**

Dimako lehiaketaren barri sare sozialen bidez jaso neban, aldizkariaren baten loturatik. Atenezinoan emon eustan batik bat, generoagaitik. Hasikera baten ez neban aurkezteko asmorik, baina gero oharkabe genero horretara egokitu eitekean idea bat bururatu jatan eta saiatzera ebatzi neban. Erronka

moduan hartu neban, jolas moduan.

**Kontaguzuz apur bat nondik nora doan ipuin irabazlea. Lehendik idatzita zeunkan ala lehiaketarako egin zenuen beren-beregi?**

Lehiaketak berak biztu eustan idea, pentsetan hasi nintzan-eta ez zala erreza (batik bat nire eskarmentu faltagaitik) erotikotasuna idatziz azaltzea eta oraindino gixiago irakurleari sentidu arazotea. Pentsau neban istorioak behar ebalda beste puntu indartsuren bat, beste tensino klase bat. Hartu-emon erotiko baten barruan debekua eta pekatua dena idea deigarri egin jatan eta hari horri tiraka idatzi neban istorioa. Protagonistak bere bihotz/burua kontraesanean dauka gorputzagaz eta desioagaz. Kontraesan horren gazi-goza da istorioak kontetan dauana; horregaitik izenburua: "Bi begi tentazio".

**Narrazioaz aparte, beste genero literarioak be landuten dozuz? Zeintzuk? Zergaitik?**

Bertso munduagaz daukat lotura gehien. Oinarriko genero literario eta bizimodu bat da bertsoaren niretzat. Idaztea be asko gustetan jata eta gura adina denpora eskeintzen ez deusadan arren, bada landu gura dodan arlo bat. Buruan daukadazan ideak papele-ateratean, ez dot jakiten prosan, poesian edo bertsoan egokituko dodazan ondoen. Eredu bakotzak ditu bere aukerak eta mugak, eta bakotxaren onena topau guran jarduten dot.

**Erotismoa erakargarria da berez eta literatura erotikoa izan daiteke modu bat jentea literaturara hurreratu daiten. Ze panorama ikusten dozu literaturari jagokonean?**

Literatureari ikusten deusat ez daukala mugarik. Nik euskal literatura topatzen dot liburuetan, baina baita eretxi artikuluetan, bertsoetan,

blogetan, txioetan eta telesailetan be. Jentea erakarten dauana blogak badira, ondo etorria izan bedi blogetan zabalduko literaturare. Idatzizko literatura be hedatzen dagoala uste dot, bada puntako lanik eta bada hain puntakoa ez izanagaitik beste ikuspuntu bat edo beste idazkera bat eskeintzen dauan lanik; guztiak iruditzen jataz aberasgarri euskal literaturearentzat.

Erotismoa atxakia bikaina izan daiteke literaturara hurreratzeko, baina gatz dauka erotismoaz kargutako aldizkari, telesail, sare eta bestelakoak lehiatzen. Niri neuri, literatura erotikotik gehien gustetan jatan da euskerazko erregistro bat sortuten dauala sexuaz eta erotismoaz jarduteko; tabuak hausten dituala eta joko esparru barri bat zabaltzen deusala euskal literatureari.

**Zeintzuk dira zure erreferenteak literaturan orokorrean eta literatura erotikon?**

Oso literatura gitxi irakurri dot berriaz erotikoa dana. Liburu bat daukat gogoan: *Nire lehen aldia* hainbat idazteren ipuin erotikoen bilduma da. Hori da irakurri dodan euskerazko liburu erotiko bakarra eta zeozelan, ipuin erotiko bat idazterako neukan erreferentea. Handik atera neban ondorioa zera zan, askoz gehiago eragiten dauala istorio indartsu batek, kontaketa zehatz eta esplizitu batek baino; eta hori da, ni egiten ahalegindu nazana.

Gainerakoan, erreferente ugari dodaz literatura munduan; batzuk atzeritarrak eta beste asko euskaldunak. Iturri askotatik edaten dot eta batzuetan iturriaren estiloa gustetan jata gehien, beste batzuetan ura bera; batzuen idazkera, beste batzuen ideak, eta gitxi batzuen biak.

**Zer da zuretzat idaztea?**

Idazteak eta irakurteak mundu bat eregiteko aukerea eskeintzen dau. Niri asko gustetan jatan definizio batek dino: "kazetariak egiak idazten dabez askotan, guzurrak espliketako; idazleak guzurrak idazten dabez, egiak espliketako". Ni formazinoz kazetaritazatik gertuago nago, baina beti egin jata erreza goa guzurren bidez egiak kontetea.

**KIRRU \* ILEAPANDEGIA**  
**SOLARIUM**  
Roberto eta Rosana  
Sabino Arana, 38 baxo - 48140 IGORRE (Bizkaia)  
Tel.: 94 631 92 00

**ZEKUTZE**  
GAZTETXEA  
Sabino Arana, 34  
48140 IGORRE - Bizkaia  
Tel.: 94 631 52 83  
zekutejabetza@hotmail.com

**Dia %**  
**PEDRO**  
**AUTOSERBITZU**  
Sabino Arana, 35 48.140 Igorre  
Tel. 94 631 15 26

**Pinturas Aratia**  
Javi Morato  
Tel. 628 443 992

**Jose Luis Corbacho**  
**pintura lanak**  
Sabino Arana, 3. 3a  
Igorre 48140 Bizkaia  
Tel.: 94-673-70-87  
Tel.: 609-79-40-54

**GESOREAK**  
**basolo Emaldi**  
ENBEN ADMINISTRAZIOA  
Abokatuak  
Tel.: 620.57.86.04  
osierbasolo@hotmail.com  
Bilbao-Zeanuri

umean modu  
**sem**  
0-16  
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE  
Tlfnoa: 94 631 92 96 • semmoda@hotmail.com

## IKUSKIZUNAK

# Kabareta eta korala Igorreko Kultur Etxean

### Erredakzioa

*Cabaret Chiuaua*, Pabellon 6-ren atzen produkzioagaz barre egiteko aukerea egongo da Igorreko Kultur Etxean hilaren 8an arrastiko zortziretan. Hurrengo domekan, hilak 16, arrastiko zazpiretan, Leioako Kantika Korala izango da Igorren.

*Cabaret Chiuaua* ironiaz aztertzen da atzen hamarkadako gizartearen egoera animikoa. Felipe Lozak eta Iñaki Marurik zuzendutako komedia musikal honetan, Liza Minnelly, Marilyn Monroe, Amy Winehouse, Cantinflas edo Sabino Aranaren imitazioak eskeintzen dira. Gure gizartearen bilakaeraz barre egiten da bertan, zelan igaro garan konsumismo

alai eta ardurabakotik krisi ekonomikoak eragindako amorrurantz.

### Kantika, abesbatz desbardina

Beste ikuskizun musikal bat, guztiz desbardina, egongo da kabaretaren hurrengoko domekan. Kantika Korala Leioako Musika Eskolan sortu zan 2001ean Basilio Astulez zuzendariaren ekimenez. Bertan 45 neska-mutil dagoz 10 eta 17 urte bitartekoak. Abesbatz hau, egungo panorama koralean erreferentea da, programazio ausartak ditualako, eszenaritzea asko zaintzean daualako eta hurren abesbatzentzat idatzitako musikea enkargau eta estreñtako konpromisoa daukalako.

Kantikak nazinoarteko sari garrantzitsuak lortu ditu.

## BERTSOLARITZEA

# Arratiako txapeldunaren txandea Bizkaiko Bertsolari Txapelketan

### Erredakzioa

Igor Menika, Arratiako txapeldunaren txandea, zemiandian 9an izango da. Zeanuriko frontoiaren oholtzara igoko da finalurrekoetarako pasea lortu guran. Ander Leortegi, Beñat Vidal, Imanol Uribe, Joseba Barandiaran eta Xabat Gallettebeitia izango ditu aurkari. Saioko irabazleak ziurtatuta dauka finalurrekoetarako pasea; gainontzekoak puntuazioaren arabera eukiko dabe sailkatzeko aukerea.

Kanporaketa horretan egin beharko daben beharra hauxe da: zortziko nagusian ofizioetan hiruna bertso, zortziko txikian ofizioetan hiruna bertso, puntu emonda bertso bi zortziko txikian eta kartzelako lana: gai bateri buruz bertso bi doinu eta neurri librean.

### Estiballes finalurrekoetan

Hiru dira Bizkaiko Txapelketan parte hartuten daben Arratiako bertsolariak. Iñaki Iturriotz izan zan lehenengoa oholtzara igoten eta 337,5eko puntuazioa lortu

eban. Hurrengoa Igor Menika izango da, zemiandian 9an arrastiko 17:30ean kantauko dau Zeanuriko frontoian. Hirugarrena barriz, Zeanurin bizi dan Arkaitz Estiballes finalurrekoetan sartuko da zuzenean. Berak daukan Bizkaiko Txapela denfendiduten ahaleginduko da. Hau abenduaren 7an izango da Amorebieta-Etxanoko frontoian.



Cabaret Chiuaua.

## MUSIKEA

# II. Azaro Musikalean musika estilo ugari

### Erredakzioa

Zemendia musikaz betetzeko egitaraua prestatu dabe Artean. Hilea hastez batera izan zan lehenengo ekitaldia, Begi Argiak korala kalez kale abesten ibili zan, eta atzena hilaren 29an izango da: Arratiako Musika Eskolako ikasleak kontzertua eskeiniko dabe San Migel eleizan. Tartean beste sei ekitaldi hilean zehar. Hau danau prestatzeko alkar-te eta herritar askok egin dabe behar, AKKTK (Arteako Kirol eta Kultur Taldea), Arratiako Musika Eskolak, Arteako Udalak, Ekumu-

seoak, Mikel Deuna jubiladuen alkar-teak, Herriko Tabernak, Guraso alkar-teak eta Arteako eskoleak, hain zuzen be.

Hilaren 6rako, Areatzako AKKBkoagaz batera antolatu dabe Jazz Gaua Bilboko Euskalduna Jauregian. Holan, Kurt Elling eta Bilboko Orkestra Sinfonikoa entzutera joateko autobusa ipiniko dabe Arratiatik.

Arteako II. Azaro Musikaleko hurrengo ekitaldia, The Jari Flowers-en kontzertua izango da, hilaren 8an Ekomuseoan.

Beste ekitaldiak hilaren bigarren hamabostaldian izango dira, hu-

rrengo hirurak Santa Zezilia egunaren inguruan. Santa Zezilia eguneko protagonistak, hilaren 21ean, umeak eta musikea izango dira. Izan be, Arteako eskoleak "Musika ere bai!" jardunaldi edegiak izango ditu arrastiko 15:00etan. Ondoren, 18:00etan, umeakaz musikea gozaten emongo dabe arrastia Arteakoak herriko plazan.

Hurrengo egunean, hilak 22, abesbatzen txandea izango da. Luis Iruarizaga Abesbatza, Arratiako Musika Eskolea eta Arteako Eskoleak kontzertua eskeiniko dabe, iluntzeko zortziretan Andra Mari parrokan.

Amaituteko, hilaren 28an, Blues-rock-a gozatzeko aukerea egongo da Electors taldeagaz Herriko Tabernan; eta 29an, 18:00etan, Arratiako Musika Eskolako ikasleak emongo dabe kontzertua Andra Mari eleizan.

## DUNBA

# Oreka Tx Artean

2014ko urri lehenengoaren 20an Oreka Tx taldeak

Artean jo eban.

### Arteako eskolako 5. eta 6. mailako ikasleak

Egun horretan, Merkartera ospatzen zan eta gaueko 21:30ean frontoian kontzertu entzungarria eskeini eban. Ia ordu biko saioa eskeini eban.

Oreka Tx taldeak txalaparta jotzen dau; gau horretan laguntzaile izan ebezan perkusionista bat, gitarra

jole bat eta haizezko tresnak (albokea, klarineta, txirulea...) jotzen ebezan beste musika jole bat.

Txalaparta talde hau Harkaitz Martinezek eta Igor Otxoak sortu eban 1997an. Biak batera hasi ziran jotzen eta urteakaz esperientzia eta ospea handituz joan dira. Kepa Junkeragaz batera jo eban 10 urtean.

Amerika, Japon, Europa eta

Afrika osoko jaialdietan joteagaitik Euskal Herriatik kanpo txalapartea ezagutzen da.

2006an Nomada Tx pelikula-dokumentala egin eban.

2012an Donostiako jazzaldian Hakon Kornstad saxofonistegaz

emonaldi bat emon eban.

Kontzertuetan harrizko txalaparta bat jotzen dabe. Kontzertuan Oreka Tx-ko musikari batek kontau eban euren lagun bat (hilda dagoana) furgonetatik urten zanean txiza egitera, txizak harria joteraoan



Oreka Tx.



soinu arraro bat egiten ebal. Hurrengo goizean txiza egin zuen lekura joan zanean harri arraro batzuk ikusi ebezan, soinu arraro hori egiten eban harriak ziran. Harri horreekaz txalaparta bat egin eban eta gaur egun txalaparta horregaz jotzen dabe.

Espero dogu datorren urtean be, Artean beste kontzertu bat entzuteko eta gozateko aukerea izatea.

## AGENDEA

## ZEMENDIAK 3

## AREATZA

Frontenis Txapelketea hasten da. Zementiaren astelehen eta eguaztenetan. AKKB antolatuta.

## BEDIA

17:00etan, hilaren 21era arte, ludoteka barrirako izen emotea 3 eta 11 urte arteko umeentzat eta Gazte Txoko barrirako izen emotea 12 eta 17 urte bitartekoentzat. Liburutegian.

Hilaren 14ra arte, Gabonetako Postalen Lehiaketea.

## ZEMENDIAK 6

## AREATZA/ARTEA

18:00etan, Euskalduna Jauregia urtekerea BOS eta Kurt Elling jazz abeslariaren kontzertua entzutea. AKKB eta AKKT antolatuta.

## IGORRE

20:00etan, zine kluba. Orson Welles zikloa. *Touch of evil (Sed de mal)* Lasarte Aretoan.

## LEMOA

19:00etan, Mobikortasun Planaren diagnostikoaren eta proposamenen aurkezpena.

## ZEMENDIAK 7

## DIMA

19:30ean, "Diman etxean gura doguz" errepresaliaduen aldeko kontzertua plazan.

## LEMOA

Lemoako Argazki Lehiaketan, argazkiak aurkezteko epea amaituten da.

## ZEMENDIAK 8

## ARTEA

21:30ean, Arteako Ekomuseoan Rock kontzertua The Jari Flowers taldeagaz.

## BEDIA

09:00etan, ibilaldia Martin Atutxaren omenez. Bediako plazan. 10:30ean, Txibi-burruntzia Bediako trikitilari gazteak girotuta. 12:00etan, mezea San Martin ermitan. 12:45ean, bola jokoa eta zozketea.

- ✦ Saioa eta Bihotz
- ✦ Estankona eta Ander Gorospe
- ✦ Autzin
- ✦ Juanma Labandibar
- ✦ Mikel Inunziaga "Inun"
- ✦ Eskean Kristö

**zementiak 15**  
**zapatua 20.00etan**  
**igorreko kultur etxean**



## Arratia Kantari II, hilaren 15ean

Saioa eta Bihotz; Estankona eta Ander Gorospe; Mikel Inunziaga "Inun"; Juanma Labandibar; Autzin eta Eskean Kristö egongo dira hilaren 15ean, arrastiko 20:00etatik aurrera Igorreko Kultur Etxean.

Saioa Gonzalezek eta Bihotz Gorospek zabalduko dabe saioa. Atzen zuzeneko emonaldia bikote moduan 1997an emon baeben be, barriri be alkarregaz kantauko dabe Igorren. Aspaldi honetan Bihotz Gorospe Harrobi taldean, Kupela taldean, Ibon Koteronegaz edo "Euskal Kanturik Onena" ETBko saioan ikusi dogu.

Ondoren Borja Estankona arteaztarra eta Ander Gorospe igorretararen txandea izango da. Borja Estankonak disko bi ditu kalean *Estankona* eta *Fruitua*, hain zuzen be. Ander Gorospek bizitza osoa dihardu kantugintzan Kemen taldean hasi zanetik eta Arratia kantari ekimenaren bultzatzaileetako bat da. Estankona eta Gorospe batera entzutea bitxia izango da duda barik.

Hurrengo Mikel Inunziaga "Inun"-en txandea izango da. Zomotzarra izan arren Igorren ditu zuztarrak. Pop estiloa da berea eta *Berreginez* bere lehenengo diskoa aurkeztu eban maiatzean. Juanma Labandibar Arteakoak be ibilbide luzea dauka musika munduan. Eten bat egin eban Akelarre erromeria talde mitikoa itxi eta gero, baina indartsu bueltau da atzen urteotan eszenariora Babel Covers taldeagaz.

Eta amaitzeko euskal musikak Arratian badaukala erreleborik erakutsiko dabe hurrengo talde biak, Autzin taldeak eta Eskean Kristök. Autzin taldeak bigarren egin eban 2008ko Euskal Kantu Txapelketan. Arratia kantari, rock banda batek zarratuko dau, Eskean Kristök bere rock&roll estiloko musikeagaz. Taldeak *Azote Kaldüz!* izeneko diskoa atera barri dau. Niko Etxarten kolaborazioa euki dabe "Latigo!" kantuan.

## IGORRE

20:00etan, Pabellon 6-koak *Cabaret Chiuaua* Lasarte Aretoan.

## LEMOA

Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta, goizeko urtekerea Arratiatik. Perrebiko bilketea.

## ZEMENDIAK 9

## AREATZA

Parkebeak antolatuta, Juanjo Hildagoren berbaldia "Basoa eta bere ekarpenak Gorbealdean".

## IGORRE

17:00etan, umeentzako zinea *Thor: la leyenda del martillo mágico*. 19:30ean, zinea *Un viaje de 10 metros*. Lasarte Aretoan.

## LEMOA

10:00etan, XV. Nekazaritzaren Elikagaien Azokea. Elizondo auzoan. Futbol zelaia ondoan. 13:00etan, Arratiako Musika Eskolako ikasleak kalejiran. 14:00etan, Abetako plaza eta azokako txokoetan Lemoako Korlagaz batera kantuan eta jantzan.

## ZEANURI

17:30ean, Bizkaiko Bertsolari Txapelketea frontoian.

## ZEMENDIAK 10

## BEDIA

18:00etan, batzarra "Ze ekintza gura dozu eratea udalak?". Liburutegian.

## LEMOA

Haurrentzako Gabonetako IX. Marrazki Lehiaketan parte hartzeko epea zabalik. Lemoako Haur eta Gazteen XIV. Ipuin Lehiaketan parte hartzeko epea zabalik.

## ZEMENDIAK 13

## IGORRE

20:00etan, zine kluba. Orson Welles zikloa.

*Chimes at midnight (Campanadas a medianoche)* Lasarte Aretoan.

## ZEMENDIAK 14

## ARANTZAZU

20:00etan trikipotea. 21:00etan bertsolariak harrerea eta bertso afaria Montero tabernan. Bertsolariak Arkaitz Estiballes eta Fredi Paia. Arantzazuko Bildu Kultur Batzordeak antolatuta.

## AREATZA

21:30ean, Destrippin taldea *The Quiet Corner* en.

## IGORRE

Arrastian, Gorbeia Igorren erakusketearen aurkezpena. Iñaki Garcia Uribe eta Gontzal Mendibilegaz.

## ZEMENDIAK 15

## AREATZA

19:30ean, Areatzako Bandak Zezili Deunaren kontzertua, eleizan.

## BEDIA

17:30ean, zinea euskeraz *Igelak eta zapoak*. Liburutegian.

## IGORRE

Ingurumena Argazki Lehiaketarako argazkiak bialtzeko atzen eguna.

Rokupa Fest Kiñuk antolatuta. Ikusi 12. orrialdea.

## ZEMENDIAK 16

## DIMA

11:00etan, Igitie-n azokea eta kalabaza erakustaldia eta lehiaketea.

## IGORRE

19:00etan, Kantika Korala Lasarte Aretoan.

## ZEBERIO

19:00etan, zinea *El planeta de los simios* (Franklin Schaffner) udaletxeko 2. solairuan.

## IRAGARKI LABURRAK

## SALDU

## MASAJEAK EMOTEKO OHATILA SALGAI

Masajeak emoteko ohatila saltzean dot, barri-barria, bitan bakarrik erabilitakoa. Tolesgarria, besapean eroatekoa. Prezioa 100 euro. 619 661 841.

## AUTOA SALGAI

Daewoo Tacuma 5 atedun autoa salgai, 11 urte. 106.000 Km. Interesdunak 94 631 79 06 telefonora deitu (Iñigo).

## UMEENTZAT AULKIA SALGAI

Bugaboo markako umeen sillea eta pianola funda bi saltzean dodaz. Interesauta zagozenak 679 909 869 telefonora deitu.

## VENDING MAKINEA SALGAI

4 urte dituan vending makinea salgai. 279 produktu sartzeko kapazidatea dauka. Interesatuak 645 725 252 edo 606 771 708 telefonora deitu.

## DANERIK

## TRASTELEKU BILA

Trasteleku bila nabil. Merkea, 30 euro

inguru. Interesdunak deitu 656 742 768 (Bego) telefonora.

## PISUA ALOKATZEN DA

Pisua alokairuan Lemoan. Logela bi, komun bi, sala handia, sukalde, balkoia eta garajea. Etxebizitza barria, zonalde onean kokatua. 656 771 662.

## EROSI

## TRIKITIXEA EROSIKO NEUKE

Trikitixa esku soina erosioko neuke. 653 716 691 (Jon Andoni) telefonora deitu.


**Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)-era. Mezuak doban dira.**

## Begitu-lagunen txokoa

## Zenbaki honetako saridunak:

**1** Bina sarrera Zeanurin zementiaren 9an egingo dan Bizkaiko Bertsolari Txapelketako kanporaketa saiorako.

Begoña Rojo (Zeanuri)  
David Antzuola (Gasteiz)



**2** Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *Cabaret Chiuaua* ikuskizunerako.

Lander Gurtubai (Igorre)  
Juan Antonio Menika (Arantzazu)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz,

zozketetan sartuko zara.

BEGITUK 12


urte eta

ehundaka

lagun.

## DENPORA-PASA

IMAN OLATU




### EZKERRETIK ESKOIERA

1.- Loka. 2.- Bokala. Ohikotasun zentzua adierazoten dau. Bokala. 3.- Nora atzizkia. Azpildura. 4.- Siku. Musika nota. 5.- Oinaze. Errusiako mendebaleko ibaia. 6.- Erbioa. Arnas. 7.- Karraka. Urrea. 8.- Uranioa. Erromatar mitologian Saturnoren emaztea. Konsonantea. 9.- Iretargi.

### GOITIK BEHERA

1.- Gozoki. 2.- Oxigenoa. Dokumentu. Bat erromatar. 3.- Begiak itxita. Zintzo. Materiaren kantidadearen banakoa. 4.- Abisu. Umeen abotsean, ogia. 5.- Birritan, dardaratzearen onomatopeia. Zeozer erreten danean. (Atz.) Musika nota. 6.- Bokala. Eleizako opila. Konsonantea. 7.- Itxurazale.




Topau eleizeagaz zerikusia daukien zazpi berba.

Z	O	R	I	O	N	E	G	O	R
A	L	T	A	N	I	A	R	I	A
M	O	N	A	G	E	E	R	E	Z
A	T	X	O	L	A	Z	Z	I	T
K	O	K	O	L	O	T	X	U	R
O	I	A	R	E	U	R	P	E	I
U	T	Z	A	R	R	A	J	U	N
K	Z	A	U	T	A	N	D	A	U
O	A	K	S	A	R	U	A	G	A
B	E	L	I	M	U	A	E	B	O
I	S	T	I	E	N	J	D	U	L
Z	U	L	O	Z	T	X	A	K	A
I	D	E	R	A	A	H	B	I	P
M	E	L	E	I	Z	T	A	R	A
O	S	T	I	L	O	P	E	K	U

# AKI MI KO

Igorren Menika



**Igorren ARKITEKTOA**  
Aitzol Aurrekoetxea Pujana  
Lehendakari Agirre 23, behea  
aitzol@coavn.org - 675 705 111

**begitu**  
arabiatz ubide zuberio  
publizitatea  
94 631 73 14 eta 649 979 115

**BIZARGINAK**  
Ulea era klasiko eta modernoan ebagiten dogu  
Bixarra eglin eta txukunduten dogu  
Elexalde, 20 Rober 630 743 543  
48.140 Igorre Manuel 661 848 793

**Beer & Edariak s.l.**  
HEINEKEN SOLARES  
Polig. Mendaketa, s' 3. 48330 LEZKOA, Bizkaia  
Tel: 650 482820 / 650 900 717

**Recreativos Gubi S.L.**  
Angel Larrea  
Zornotza Tlfnoa 649 86 95 36

**Los Chopos**  
neurritza egindako armairuak  
Avda. Los Chopos, 33 (Nagarri) Tel.: 94 630 40 94  
**Esposizinoa eta fabrika Lemoan**  
Pozueta poligonoa, Lemoa 94 631 34 44  
www.armariosloschopos.com

**GARANTXE Autoeskola**  
TEORIA EUSKARAZ ZEIN ERDARAZ  
Balmesak: A1, A, BTE, B  
Lehendakari Agirre 34  
Tlfnoa: 94 673 71 52  
48140 IGORRE (Bizkaia)  
garante@autoeskola.net

**AKETEGIA**  
**GAV 5 LORA**  
**IGORRE**

**AHOLKULARITZA:**  
LEGE-LAN ARLOAN  
**ZUZENBIDE**  
ZERGA ETA DERU KONTUTAN  
ONDARUN HUGAZTINEN ASIGURUTAN  
Salme Arria, 3. Floor, 94 673 41 41 - Fax: 94 673 41 41 - 4148 (Gorri)

**BIXER TABERNA**  
Beko kalea, 2 - Telf. 94 631 73 65 - VILLARO

**axular**  
Agirre Lehendakaria 4 - 94 673 70 92  
axularke@gmail.com

**ekin s.l.**  
CONSTRUCCIONES  
Iturriotz barrera 8 - 48141 Dima (Bizkaia)  
Tel.: 94 631 72 57 Faxa: 94 673 95 25  
e-posta: cbras@construccioneseekin.com

**ARRATIA AUTOESKOLA**  
karneta eskolaraz bain ezinez  
Garbe, 10 - 48140 Igore (Bizkaia)  
Telefonoa 94 631 36 31 Faxa 94 673 70 83  
e-posta: unida@euskalnet.net

## IKER YURREBASO

## "Basozain, politikari, baso jaube eta teknikari adoretuak eskatuten doguz"

Zemendirako II. Basogintza Jardunaldiak antolatu ditu Igorre Bizirik-ek. Yurrebaso igorretarra, taldearen izenean BECITUGaz batu da.

## Irati Urien

## Zein da jardunaldion helburua?

Apurka-apurka basogintza eredu desbardinaren inguruko eztabaidea sustatzea da gura doguna, alternatibak ezagutuz eta gaur egungo eredu eztabaidan ipintea. Jardunaldiak hiru helburu daukiez: Lehenengoa baso jaubeak, instituzioak eta herritarrak informetea; bigarrena, basogintza eredu desbardinak landuten dabean esperientziak ezagutuz, eta hirugarrena baso jaube, instituzio eta herritarren artean zubiak egitea.

## Zein da Arratiako basogintzearen egoera?

Ez da Arratiari bakarrik ikututen deustan gaia. Bizkaia eta Gipuzkoako ereduak oso antzekoak dira, salbuespen batzuk kenduta. Atzenengo hamarkadetan herrialde biotan landu diran ereduak kezkatuten gaitue arrazoi desbardinakaitik. Martxan dagozan eta funtzionetan daben beste esperientzia batzuk ezagutuz gura doguz, Alemania zein Frantziakoak adibidez. Gainera krisi testuinguru baten gagoz, non egurraren prezioa asko bajatu dan, mantentzeko laguntza gixiagoko dagozan... Baso jaube askok gaur

egun ez dakie oso ondo zer egin. Baso asko itxia be badagoz, askotan basoak daukazan jenteak jakin be ez daki non daukan basoa bera. Egurra basotik aterateko orduan erabili diran teknikak lurragazko sano erasokorak izan dira. Higadura handia dago hemen, lurzoru emonkor asko galduten da maldakaitik, lurrak mobiduteagaitik makina pisutxuak sartu diralako, eta euri asko egiten dauanez euriak lur busti hori eroan egiten dau. Kalte handia egin da.

## Baso Ahaztuak dokumentala aurkeztu zenduen igaz. Zer erakutsi guran?

Apur bat gure ardura guzti honeek espliketan dauzan dokumentala da. Taldean badago landare haztegi baten lan egiten dauan kide bat, nekazal injinieru bat... Jakintza tekniko minimo bat badaukagu, gainera Europar egiten diran beste esperientzia batzuk ezetuten doguz, eta orokorrean sano sensibilizata gagoz naturaren konserbazioagaz. Adibidez monolaborantzaren kontua be hor dago. Guk agroekologia eta biodibersidadearen alde egiten dogu apustu. Basoa ustiatu behar dala onartuten dogu, hori argi dago. Itzelezko baliabide naturala da. Baina

modu iraunkorrean erabili behar da. Ez gagoz produktibidadearen kontra, eta hori argi itxi gurako geunken gauza bat da. Argi daukagu produziduteko egokiak diran guneetan produzidu behar dala, baliabide bat dalako. Materiala behar dogulako bai eregiteko, bai energiako, bai jateko, eta abar.

## Kontua "zelan" izango litzateke, ezta?

Orain arte sano modu intensiboan produzidu da. Basogintzeak hiru hanka dauka: ekologikoa, ekonomikoa eta soziala. Batez be ekonomikoa landu da. Soziala nahiko lotuta doa ekonomikora baina ekologikoa ia ia demingortasun moduko bat izan da. Guk hirugarren hanka horri pisu gehiago emoteko beharizana ikusten dogu.

## Zelan lortuten da konzienzia-zinoa?

Ez da erreza. Konbenziduteko modu onena instituzioen inplikazioa da; hau da, epe luzeko estrategia bat, eta diru laguntzak argi eta garbi. Baso jaubeak administrazio publikoak egiten dauan egiten dau. Diputazioak pinuak ipinten badauz jenteak pinuak ipinten dauz, edo eukaliptuak. Orduan, alde batetik administrazioak diru laguntza gehiago emon beharko leukez beste arbola espezie batzuk landateko, kalidade hobegokoak. Beste alde batetik jardunaldi honek konzienziario eta komunikazio edo informazio papel hori daukie. Holan mahai baten inguruan hausnartu behar da basoa zer dan edo zer izan ahal dan, eta ulertu basoaren ulerkeria ez dala lineala, bakotzak basoaren ulerkeria bat dauka. Orduan kudeaketa horrek ulerkeria guzti horrek batu beharko leukez. Beste modu bat martxan dagozan esperientziak ezetuz gura doguz, eta gainera errentagarriak dira. Produktoreari, normala dan moduan, errentagarritasunak asko ardura deustoa.

## Baso jaubeak falta ezin diran konbidauak izango dira.

Jardunaldiak baso jaubeak erakarteko bideratu eta planteau doguz.



Halanda be, nekazal eskoletako jentea, teknikariak, basozainak, instituzioak, herritarrak... be hurreratutea gurako geunke.

## Eredua aldatu ezean, zer pasauko litzateke?

Batek daki. Txarrean, karta batera jokatu badozu dana galduteko arriskua euki zeinke. Monolaborantza bat dan heinean, benetako gaixotasun edo izurrite bat heldu ezker, Bizkaiko basoen % 65-70a desagertu egingo litzateke. Honegaz zenikusi handia dauka luraren tratamenduak, nik nekazari moduan be asko alderatuten dot ortuagaz. Ortu baten errotazioa sano inportantea da, barazkiak edo barazki familia errotetea. Plagak leku baten espezie bardina landatuten dozunean erasoten dabe. Espezie aldatuz basoak plagearen zikloa akatu zeinke. Horregaitik luraren emonkortasuna eta aberastasuna galduten bazabiz, zugata ez badago indartsu, izurrite bateri aurre egiteko arriskua gero eta handiagoa da.

## Eta aldaketea emon ezker?

Bide hau landuteko berrehun urterako plangintza estrategiko bat egin beharko litzateke. Hori gatxa da. Gaur egun politikea eta gizartea sano arin doaz eta, epe laburreko plangintzak egiten dira. Nik hainbeste onura ekariko leukezala ikusten dot. Hasteko biodibersidadea. Sano garrantzitsua da, gizakientzat be bai. Flora mailan, fauna mailan... biodibersidadea irabaziko geunke. Gainera, basogintza horretara

bideratu ezker kalidadezko egurra be lortuko geunke, eta horrek balore handiago daukan egurra esan gura dau, merkaduan urtekeria gehiago daukan egurra, ondorioz errentagarritasun ona. Kalidadezko paisaje bat be lortuko geunke, hezkuntza eta aisiari lotutako ekonomia, abeltzaintzari, elikadureari lotutako... Atzen baten, basogintzeari lotutako ekonomia dibersifiketea inportantea da. Lortuko geunke be basoagaz hartu-emon berreskuratutea. Gizartearen eta basoaren edo naturearen arteko hartu-emon hori, apur bat galduta dagoalakoan nago eta. Badago linea moduko bat non gizartea dagoan eta gero, linearen ostean, natura. Dibersifikazio hori emoten bada erakargarritasuna be handitu egingo da eta jentea gehiago hurbilduko da basora. Eta hezkuntza landuten badozu hartu-emon hori indartu egiten da, eta orduan hobeto zainduko da.

## Antzina pinua landatutea aberastasun iturri zan. Arratian inguruok pinuz josita daukagu. Orain arbola honek ez dau bape be balio. Zer pasauko da dagozan pinudiakaz?

Galdera ona. Onartuten dogu pinuak diru asko emon eutsala momentu baten baseritarrari, eta horregaz jenteak bere bizi baldintzak hobetu ebazala. Hogeigarren mende hasieran hemengo basoen deforestazioa itzela zan eta derigorrez hazkuntza arineko espezie bat behar zan orduan, egurra produziduko ebana. Esperimendu egin zan eta pinuak nahiko ondo funtzionau eban. Lurra finkatuten be lagundu eban. Baina globalizazioagaz Txiletik edo Bielorusiatik egurra merkeago sartuten hasi zan. Horregaitik baso jaubeari ez jakie errentagarri egiten. Hori nahiko presente dago bai teknika-rien, diputazioen, baso jaubeen zein naturzaileen aurrean. Orain biomasearen kontua landu guran dabiz. Halanda be, guk uste dogu energiarena zerbitzu publiko bat izan behar dala eta ez negozio pribadu bat.

UDAGOIENA 2014

**HAIZE-MAKINAK**  
199€tik

**MOTOAITZURRAK**  
549€tik

# ESKAINTZAK

## ETA AHOLKULARITZA

**MOTOZERRAK**  
199€tik

**Zure denda**  
**espezializatuan bakarrik**

GARAJE FELIPE

Garbe 2. Igorre (Bizkaia)  
Tel./Faxa 94 673 63 39  
garajefelipe@euskalnet.net

Montorra z/g. Amorebieta (Bizkaia)  
Tel./Faxa 94 630 90 39

[www.garajefelipe.es](http://www.garajefelipe.es)